

ARGIA



JON IÑARRA

«Udalei autonomia
kendu nahi zaie
beste erakunde
handiagoetan sartuz»

ARABA EUSKARAZ


Armentia
ikastola gaztearen
sasoia Gasteizen

GALIZIA

BNGkoak
udal askotan
giltza bihurtu dira

ANTON MENDIZABAL

Pilotalekuaren
espazioan jokoan
dabilen artista



ROBERTO MOSO

«MUSIKA GUZTIAK DIRA KANPOKOAK»



DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCÉS

POR EL PRESBITERO

RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE

PROFESOR DE VASCUENCE EN EL INSTITUTO DE BILBAO

MIEMBRO DE LA SOCIEDAD LINGÜÍSTICA DE PARÍS, DOCTOR EN TEOLOGÍA

DICTIONNAIRE BASQUE-ESPAGNOL-FRANÇAIS

APIAZA (S, Alth.), renóncula, vulg. botón de oro: *renoncule*, vulg. *bouton d'or*. (Bot.).

APIKA (G-t), apike (G-and-zeg, R), acaso, *peut-être*.

APIKA (E.H.). Proiektu, antolaketa eta zerbitzu informatikoak.

APIKak iadanik euskararentzako hainbat lanabes eta tresna garatua du.

Horien artean:

- Silaba-banaketarako automatikak, euskararako eta gaztelaniarako. "C"z garatua eta OASIS (1985) eta THEOS (1990) sistema eragileetan ezarria,

ZERUKO ARGIA S.A.L. argitaletxean. 1994ean Macintosharako.

- Hitz-indexaziorako sistema parametrizagarria (hizkuntzaren arabera)

euskara eta gaztelaniarako, probabilitate handieneko aleatorizazio-

metodoan oinarritua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aldizkari

Ofizialerako. Atzitze masiboko prozesua eta berorren analisi

automatikoari dagokiona "C"z (XENIX) garatu dira (1987-88).

- EHUko Informatika Fakultatean garatutako XUXEN ortografi-
zuzentzailearen proiektuaren bultzatzaile izan da eta horretan
zenbait algoritmo inplementatu: hitzen indexazioa eta berorren
berreskuratzea hurbilpen lexikografikoaren metodoaz. DOSen
eta UNIXen ezarria (1988-90).

- Euskarazko indexaziorako iragazle morfologikoa. Baionako
IUTrekin lankidetzan. "C"z (UNIX) inplementatua (1991-92).

APIKAREN esku artean egun garatzen ari diren proiektuak:
- AWR hitz-ezagutzailea: gaztelania, frantsesa, euskara eta
katalanerako. Hizkuntza natural bakoitzaren analisi
morfologikoan oinarritua.

- Aplikazioak: * Autozuzenketa multikausala.

* Testu-indexazio eta -berreskuratzea,
hizkuntza-domeinuak mugatuz.

The logo for APIKA features the word 'APIKA' in a bold, black, sans-serif font. The letter 'I' is replaced by a solid orange square. The letter 'A' at the end is replaced by a solid green square.

PROIEKTU, ANTOLAKETA ETA ZERBITZU
INFORMATIKOAK

DONOSTIA: Ametzagaña, 19 - behea - Tel (943) 28 33 99 - 28 36 78 / Faxes: 2746 00

URRUÑA: Xalbardin Baita - Tel: (07.33) 59 47 60 00 - Faxes: 47 60 01

BARCELONA: Aragó kalea, 63 - behea 1 - Tel: (93) 226 49 24

6. Politika kronika. PELLO ZUBIRIA.

8. Jon Iñarra, Herri Batasunako Oartzungo alkatea. «Udalei autonomia kendu nahi zaie erakunde handiagoetan sartuz». PELLO ZUBIRIA.

12. Astean zehar. XABIER LETONA.

14. PPri alkatetzak kentzeko sozialistak galiziar abertzaleekiko akordioa errefusatu dute. XABIER LETONA

18. Joseba Mandaluniz, Maier enpresaren teknologia zentro berriaren arduradunarekin elkarriketa. XABIER LETONA.

20. Etokizunaren aldeko apustua igandean Armentian egingo den Araba Euskaraz 95ek. LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI.

24. Euskal Herriko Lehen Goitibehera Lasterketa irailaren 2an. IXABEL ETXEBERRIA.

26. Emakumeek euren burua defenditu nahi dute. Erasotuak! MYRIAM GARTZIA.

29. Roberto Moso: «Hasierako Zarama harekin geratzen naiz». EDORTA JIMENEZ.

34. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.

37. Anton Mendizabal eskultorearekin solastatu gara bere obraz. JOXEMI SAIZAR.

40. Euskal Herriko Haur Kantu Txapelketaren finala Basaurin jokatu da ekainaren 17an. J.J. PETRIKORENA.

42. Euskal Musika zikloa burutu berri da Parisen. Musikaren promozioa eta promozioaren musika. J.J. PETRIKORENA.

45. Argitalpenak. J.J. PETRIKORENA.

48. Irrati-telebista. NEREA ETXANIZ.

52. Aukeran. AMAIA UGARTE.


56. Denborapasa.

58. Udalak, legealdi berri baten atarian.

JOSE M^aVELEZ DE MENDIZABAL.




ROBERTO MOSO:
Santurtziko Ibilaldian eskaini zuen bere azken kontzertua Zarama taldeak, eta urte guztiotan liderra izan duen Roberto Moso Edorta Jimenezekin mintzatu da ARGIArentzako. Bere taldeaz, euskal rokaz, honen merkatuaz eta bilakaeraz, musikaz orohar eta baita Bilbo eta Ezkerraldeko gizarteaz egin dizkion galderei ere erantzunez dituen iritziak azaldu dizkigu. «Hasierako Zaramarekin gelditzen naiz» dio musika guztiak kanpokoak direla uste duen Mosok. /29



ARGIA ESKURATZEN DUZUN HORRI!

ESKA EZAZU ARGIAren
EUSKARRI TAULA

Argia astekaria non ipinia izateaz gain egur koloreko euskarri honek ziur txokoren bat apainduko duela. Egin ezazu eskaria goizeko 9etatik 1era edo eta arratsaldeko 3etatik 7ak bitarte, ARGIAren 37 15 45 telefonora deituz (2.000 pta. + 300 pta. bidalketa)



ARGIA

astero etxean

ARGIAren harpidedun izan zait

✗ ARGIA etxean hartzeak abantaila guztiak ditu

✗ Zenbaki guztiak jasoko dituzu, kalem baino % 20a merkeago

✗ Euskal Kulturaren Urtekaria etxera iritsiko zaizu

✗ ARGIAren eskaintza berezietan parte hartu ahal izango duzu

ORAIN ARGIAKO
HARPIDEDUN EGINEZ
GERO HAUETAKO
KONPAKTO, BIDEO
EDO LIBURU BAT
ESKURATUKO DUZU

DOHAINIK



TTAKUNen KONPAKTOA

"EUSKALDUNEN AMERIKA" JOSEBA ETXARRI

"INGERUAREN BIHOTZA" BIDEOA

HARPIDETZA TXARTELA

(943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA _____ 1. DEITURA _____

2. DEITURA _____ HELBIDEA _____

TFNOA _____ HERRIA _____

POSTA KODEA _____ HERRIALDEA _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____

SUKURTSAL HELBIDEA _____ SUKURTSAL ZKIA. _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA

Entitatea

Sukurtsala

K.D

Kontu zenbakia

KIOSKOAN
BAINO

%20a MERKEA

HARPIDETZA SARBAN
(BEZ barne)
Hego Euskal Herria
11.600 pztza
Iparr. Euskal Herria
685 libera
Espainia 11.600 pztza
Beste Atzerriak
15.100 pztza
Airez 23.850 pztza

ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15

LASARTE-ORIA 20160

Zuzenketa

1.533. zenbakia zeraman alean akats koskor batek 'ihes' egin zigun. Ibilaldiari buruzko dosierra aurkeztu genizuen. Ibar Ezkerra eta Santurtziko euskararen presentziak hitz egitean, artikularen izenburu eta sarreran Santurtzin euskaldunen kopurua %15ekoa dela esan genuen. Nahiak traizionatu gintuen. %5,3koa da portzentaia; %15ekoa Santurtziko ikastolak jasotzen dituen haurrena.

ARGIA

Lurra defendatu

SUSTRAIAK lur honetan erroturik dauzkagu. Lurra kaltetuz gero oinarririk gabe geundeke. Herioa letorke garaia baino lehen kontu eske. Lurra ez da gurea, gu gara lurarenak. Gainerako piztiak, ibaiak eta landareak bezalakoak gara. Lurra suntsitzeko dugun ahalmena da bereizten gaituen bakarra. Beharbada erantzukizun handiegia guretzat. Saia gaitezen lurra maitatzen. Hala bada, belaualdi berriek esker-tuko digute.

Lehen, Lezoko padura eta hondartzak txikitu zizkiguten. Txirla, arrain, zizare, ixkira, muskuilu, karramarro eta arrantzaleak betirako urrundu ziren portu erraldoitik. Eta kakatza ez ikustearren hesi handi batez inguratu ziguten itsasbazterra.

Orain, Lezoko mendiak txikitu nahi dizkigute. Autobia beltza baletor zelai, erreka eta baseritarrek egingo lukete ihes. Ez etsi! Lurra defendatu!

ZABARRE

LEZO (GIPUZKOA)

Errusiaren porrotaz

GARBI dago fama deritzan jainkosa horrek, ahoz aho eta belarri belarri zabaltzen dena, ikaragarritzko ahala



duela, eta transmititzen duela egiazkoa nola falsoa, Virgiliok zioen moduan. Adibidez, trastorno mentalek badute sintoma ardatz bat, zeina baita beldurra, maila ezberdinetan emana, eta hori primeran egokitzen ahal da gizarte motarekin, gurea konpetiziozkoa da (badut hori denori azertua beste lekuetan), eta gaixotasun mentalen agertzea horren ispilu argia da. Nik ere baditut sintoma hortatik gaixotasunezko mannerak, eta nire gaixotasunaren konziente naizenez nire diagnostikoa ez da paranoia, baina behar dut tratu bat oso amablea, bistan dena; gizarte honetan ez dut horrelakorik jasoko, beraz, nire gaixotasunak, horregatik, kronifikatzeko joera du, berez kronikoa ez bada ere. Nik, Allan Poeren terminoak erabiliz, honela definitzen dut: sensibilitatearen sotiltasun gaixoki batez sufritzen dut. Espero dut horrek ez duela tratatuko nire filosofiaren balioa, eta bai mehetuko. Fama batzuen kontra guzti hau.

Hauxe Tele-5ean aditu nuen. Egun batzu badira aditu nuela eta berban berba ez dut ematen, jakina, baina bai ur emanda. Neftegorsk-eko lurrikaraz ziharduten irudiak ematen, eta eraikuntza guzien triskantza erakusten zutelarik, iritsi zen kamera Leninen estatua batera, zeina zutik gora baitzegoen, eta komentatzen zuen ezta Ezker Batukoa ere ez zen periodistak estatua hura zutik jarraitzen zela material primera-koaz eginga zegoelako, hots, burdin,

urrez eta berunez, baina etxeak materialik merkeenean zeudela eta hor zegoen herriko jendea zemento azpian hilik ez baizen hiltzen, lazgarriagoa zena. Orain bizirik atera diren gizajoez ez dute Moskuiko promesak besterik, eta etxe berriak erosteko posibilitaterik ez daukate ezen euren soldata 6.000 rubloetakoa da, eta bizilagun bakoitzeko 16 metro karratuko gelak daude soilik eta metro karratu bakoitzak balio ditu 50.000 rublo, beraz, polo artikoaren ondoan dagoen ugarte hartako bizilagunak kalegorrian daude, aterpe barik. Neska gazteak ere, eskolara joan beharrean, kale bazterretan puta dabil-tza, Moskun bezala, orain urte bete erakutsi zuen gure konpañero Carrascalek... eta hola. Hurrengo berria NAsari buruzko erreportai, plan anbizio-tsuak espazioaren esplotazionean erakutsiz, ordenadorez egin irudi virtual phantastikoez lagunduta.

ROMAN GARMENDIA
SORALUZE (GIPUZKOA)


JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.
LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.
ZUZENDARIA: Pello Zubiria.
Kontseilu Editorialeko Arduraduna: Baleren-Bakaikoa.

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.pabiloia.
20160 Lasarte-Oria.
Tlf: 37 15 45. Faxe: 36 10 48.
BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerria. 48003 Bilbo.
Tlf: 410 34 34. Faxe: 410 37 15.
NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerria.
31011 Iruñea.
Tlf: 17 80 78. Faxe: 17 80 77.
IPARRALDEA: Harrobiko Etxea, 64122 Urruña.
Fax-Tlf: 47 17 10

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.
ISSN: 0213-909X.
BATZORDE PAREKIDEA:
72562 E.

INPRIMATEGIA ETA FOTOMEKANIKA:
Antza, S.A.L.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Turismo Departamendua



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra sozial
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Alkate soinua, usoak, muturrekoak

JOSEBA Egibar izan zen, Jose Mari Aldaiaren bahiketaren kontrako lehen manifestaldia antolatu zenean, Gesto por la Paz elkarteari estraineko kritika egin ziona: bere indarra ongi neurtu eta zegozkionak baino gauza handiagoetan ez sartzeko eskatu zion EAJko bozeramaileak. Ramon Jauregik orain mugimendu bakezaleen protagonismo gehiegizkoa mugatzea proposatu du sozialisten buruzagitzatik, bake bidean alderdi politikoei dagokiela bidea urratzea, eta Ajuria Eneko ituna indartu behar dela berriro. Ajuria Eneko ituna «en su estado puro».

Urte guztiotan alderdiek garbi aski erakutsi dute itunak irakurketa ezberdinak baimentzen dituela —elkarrekin jarraitzeaz aparte, zein adostasun berriekin burutu dituzte azken bilerak?— eta kosta behar zaio buruzagi sozialis-

tari Ajuria Enekoaren «garbitasuna» zertan datzan zehaztea. Hala ere, funtsean deia egina dago, ez Rodolfo Aresek bezain era astoan —«Desde el conglomerado mafioso propagandístico del terror, HB, LAB, Jarrai y Elkarrí»... bota zuen bizkaitarrak— baina ildo berean. Gesto eta inguruko mugimenduen lana pittin bat desaktibatzeko asmoan jeltkideekin bat baldin badator, PPrekin dago ados Jauregi EAJk bake-ratze estrategian hartu nahi duen protagonismoa mugatzeko gogoan. Jeltkideek «irlandazaletasuna» ahaztu egin behar omen dutela, alegia. Besteen

proposamenak mugatu nahi dituzte sozialistek, baina ordainetan berena zein ote da?

ETA-K joan den astean Donostian eman duen kolpeak batetik, eta Gesto por la Paz eta inguruko mugimendu bakezaleek antolatu laxo urdinaren kanpainari Ezker Abertzaleko erakundeek aurrean ipinitako erreazioak bestetik, eragin dituzte mugimendu horiek eta gehiago. Donostiako Anoetan Nestor Basterretxearen Bakearen Usoaren aldamenean izandako istiluek hainbat alditan aipatu den enfrentamendu zi-

Hegoaldean, azken orduko ezustekoren bat ezean, orain hasiko da Euskal Aautonomi Elkartearen EAJ-PSE-EA hiruko-zilindroaren benetako aroa

Bakean pasa zen
Iehenengo
astelehenekoa: ETArí
Aldaia askatzeko
eskatzuz Gestok deituta
bilduen aurrean
Amnistiaren aldeko
Batzordeen deialdiak
erakarriek «Euskal
Herri Askatu» eskatu
zuten. Istiluak
ostegunean sortu
ziren, Alditranseko
langileen deialdiak eta
LAB sindikatuarenak
erakarritakoen artean.
Laxo urdinaren
kanpainak horrela
beste itxura bat hartu
du. (Arg.: «El Correo»).



bilaren adibide grafikoa osatu dute batzuentzat. Eta beste batzuk berriz 1978ko urrian Bilbon ETaren kontra egindako manifestaldian —usoak ziren orduan ere erditik— izandako istiluez oroitu dira. Hamazazpi urte igaro dira, eta orduan ere muturrekorik izan zen.

Gogorragoa izan da ETaren azken atentatuaren astindua. Gregorio Ondoñez hil eta Jose Maria Aznar ia garbitu ondoren, Juan Alberto Belloch ministroaren planetan ETaren kontrako borrokan paper zentrala jokatzan zuen poliziburua, Enrique Nieto, bota du. Bere etxe ondoan, Donostia erdian, tiro bakar batez. Eta enpresagizon bat dauka bahituta, hilabete pasata. Anekdotak alde batera lagata —zein joko darabil hilketa berrogei urteko gizon bati izen eta guzti egotzi eta biharamonean lekukoek hura ezagutu ez dutela dioenak?— ETA hiltzorian zegoen iritzia alde batera utzita dago. ETaren ekintzek inolako zentzurik ez zutela esaten bazen, atentatu sail honekin negoziaketa behartu nahi duela argudiatzen hasi da berriro. Aspaldiko gaiak konpontzeke dauzkala iritsi da berriro Madrilgo gobernu Europa lehendakartzara.

BITARTEAN, ondoko urteetan Euskal Herriak bere erakundeetan edukiko dituen pertsona eta aderdien mapa osatzen da aste honetan. Azkena burutu den hauteskundeak eskaini du emaitzik gardenena, abertzaleei begira batik bat: Ipar Euskal Herriaren hauteskunde sistema maioritarioagatik, botorotan lortu duen igoera nabarmena deus gutxi islatuko da karguetan. Bai gorri batean, botoen %35a eskuratuta zinegotzi bakar bat edukiko ez dutela esatearekin dena argituta dago.

Hegoaldean, azken orduko ezustekoren bat ezean, orain hasiko da EAEn EAJ-PSE-EA hiruko-zilindroaren benetakoa aroa. Allik UPN eragin zatiketarik bere lehen fruituak eman ditu, eta muspartida emozionante bezain konplikatu hasia dute iadanik UPN eta HB bazterrean utzi dituzten lau horiek.

PELLO ZUBIRIA

G O R D E T Z E K O A K

PANPI LADUCHE MICHELLE ALLIOT-MARIEREN ZERRENDAN

Panpi Laduche pilotari azkaindarra Donibane Lohitzuneko alkatetza lortzeko Michelle Alliot-Mariet aurkezten duen hautagai zerrendan ageri da. Parisen ministrari kargua galdu ondoren Donibaneko alkatetza eskuratu eta ondoren kontseilari orokor izateko helburua luke RPRko hautagaiak. Bere arerioa den Paul Badiola sostengatu du Bayrou ministrariak, eta baita Miarritzen zerrenda barruan Jakes Abeberri daraman Didier Borotra ere.



MARTINE MOLLÉREN TARTEA

ABERTZALEAK PSF-REN ZERRENDAN

«Poderearen aldean gauzen egiteko parada duzu»

Raphaël Lassalletteren zerrendan sartu nintzen negoziaketa baten ondotik. Hau da, gure helburu nagusia zen ikastola berri bat eraikitzea eta Lassalletek onartu egin zuen. Bilana egiteko momentuan erran nezake positiboa dela, ikastola eraikia baita, bere mandatua azken urtean bada ere. Hitza bete du eta guk eraman genuen negoziaketaren puntu nagusia lortu dugu.

Gure helburua izan zen baita ere Hegoaldearekin harremanak sortzea baina kemena falta izan zaigu eta erran behar da Hegoaldean jendea ez dela baitezpada prest horretarako. Mentalitateak aldatzeko badago lan baten egiteko segurki.

Heldu den agintealdirako hizkuntzaren aldeko eskaera bereziak ditugu, halanola estatutu publiko bat eman behar zaiola Euskarari Herriko Etxean. Horretaz bi hau-

tetsi arduratuko dira, Hizkuntz teknikari bat izendatuko da ere herria euskalduntzeko helburuarekin. Hegoaldearekiko harremanak indartzeko adxointak izanen ez diren hautetsi batzuen eskuetan utziko da ardura. %1 hori dagoen horretan geldituko da bi urtez bederen, egoera oso larria baita buxetan. Mugatze horrek denentzat bali du.

Neretzat hirugarren mandatoa izanen da. Nere iritiz, gehiengo duen zerrendan parte hartzea inportantea da, poderearen aldean zaudelarik gauzen egiteko eta lortzeko parada baituzu.

Kontseiluan Arranbideren parean egoteak ez dit arazorik sortzen, gehienetan berdin bozkatzen dugu, Sokobururen kontra bozkatu nuen nik ere. Uste dut gure lana osagarria dela. Bada hoge urte hautetsi abertzaleak daudela auzapezaren zerrendan eta heldu den kontseiluan sekulan baino abertzale gehiago izanen da, zerrenda desberdinetan presentatzen badira ere.

*Martine Mollé

Hendaiaiko hautetsi abertzalea Lassallete alkate sozialistaren zerrendan.

Jon Iñarra, Herri Batasunako Oiartzungo alkatea

«Udalei autonomia kendu nahi zaie erakunde handiagoetan sartuz»

Hirugarren agintealdia egingo du Jon Iñarra Herri Batasunako alkateak Oiartzunen. Gehiengo absolutua eman diote bigarren aldiz, Donostia inguruan Errenteria, itsasoa, Irun, Nafarroa eta Lapurdirekin mugak-loturak dituen herriko biztanleek.

HBk gehiengo absolutua lortzen duen herri batek, Oiartzunek, berezia izan behar duela dirudi.

Oiartzun herri abertzalea da, inguruko zenbait herritan abertzaletasuna galtzen joan arren hemen mantendu egin da. Alde horretatik berezia da, nahi baduzu. Mundu ur-




«Okerrenak PSEkoak eta EAJkoak dira. Horiek beren astoari egiten diote arre beti». (Arg.: A. Elosegi).

banoaren eta nekazari girokoaren tarte horretan kokatua dago Oiartzun, mendia eta eta itsasoaren arteko bailara batean dago. Lan munduan ere mistoa da, fabrikari eta baserrian egiten da lan. HBk gehiengo osoa lortzeaz gain zinegotzi guztiak dira alderdi abertzaleetakoak. Hori ez da leku askotan gertatzen.

Lehen EAJ izan zen boto gehien eskuratu zituena, baina azken urteotan Herri Batasunak gizartean txertatzen jakin du, elkarrekin, auzoetan, Oiartzungo bizitza osoan parte hartzen dute HBko militante eta aldekoek. Oiartzun auzo ttikitan banatua dago eta horietan HBk eragin handiagoa du beste alderdiek baino.

Herri bonetan nola pasatzen dira zuen eta beste alderdien arteko harremanak?

Zinegotzien arteko harremanak oso onak ez dira, batez ere udala ulertzeko modu oso ezberdinak dauzkagulako. Baina herritar guztiekiko harremanak Oiartzunen oso onak dira, alderdi batekoekin bezala beste-



«HBn saiatu behar dugu jendearengana iristen. Irekitasun handiagoz jokatu». (Argazkia: A. Elozegi).

koekin. Zinegotzien arteko iskanbila tikiak normalean udaletxean gelditzen dira.

Hortik aparte, esan behar dut gobernu batzordean alderdi guztiei ematen diegula parte hartzeko aukera: beren ordezkari bat daukate. Batzordeetan ere parte hartzen dute. Eta edozein mozio aurkezten dela ere, 48-72 orduko tartean sartzen dugu. Galde ezazu hor barna,

eta hori herri guztietan horrela ez dela azkar ohartuko zara.

Inguru bonetan, Hernanin, Astigarragan, Oiaritzunen... EAKoen eta zuen arteko barremanak oso txarrak dira, nabarmen.

Irudipena daukat EAK ez duela alderdi politiko bezala funtzionatzen: talde homogenoa ez dago, independente asko dituzte... EAJn

gehiago funtzionatzen dute talde bezala. Eta gero hori udaletan ere nabaritzen da.

Oiaritzunen EAKoek helburuei baino gehiago formei begiratzen diete, gauza batean gurekin helburuetan ados daudela dirudi eta forma aldetik oso «kiskiloso» bihurtzen dira. Eta nolabait gestioa paralizatu egiten dute. Gai bat ateratzen denean ez dira definitzen, alde

HAMARREKOA

J.L. ETXEGARAI

«Lesakako alkatea, gustora ezagutuko nuke: aurrez aurre ez gara sekula egon»

IMANOL MURUA

«Aberizalea, tratu samurrekoa. Autobiarekin, ezagutzen ez nuen beste gizon bat azaldu zen»

RUFI ETXEBERRIA

«Oiarzuarra, zorrotza, sobria. HBn bere lana egiten ari da»

ROMAN SUDUPE

«Gogorra eta hotza. Elkarren artean tratu korrektoa dugu»

EUGENIO AROZENA

«Garai batean tratu gehiago genuen. Antzerki munduan dabilela dirudi»

XABIER PORTUGAL

«Pasaiko alkate ezagutut, oso egokia harreman publikoetarako»

XABIER LETE

«Oiarzuarra, eragin handia izan zuen. Lehen hobeki ulertzen nion»

FLOREN AOIZ

«Kasta politikoko gizona. Langilea, gaztea, etorkizuna hortik doa»

BUEN LACAMBRA

«Oretako alkatea, solidaritatea aipatzen du baina oso berekoa da»

XABIER ZUBIZARRETA

«Oso gizon trebea eta balio handikoa»

daudela dirudi baina gero praktikan oztopoak jartzzen dituzte.

Zuen inguruan Astigarragako alkatea HBkoa zen, Hernanikoa ere bai, Usurbilgoa, Lezokoa, lehen Errenteriakoa ere bai... Ez al zara bakarrik sentitzen orain?

Gure arteko harremanak mantentzen ditugu HBko hautetsiek, alkateak lortu ala ez. Baina eskualde bezala garatzen ari bagara, hor eragin pixka bat galduko dugu. Beste erakundeetan, Diputazioan-eta, egia esan, zango trabak ipintzen dizkigute, baina hori alkate asko edo gutxi izan berdintsu da. Hori gertatzen da instituzio bezala funtzionatzen ikasi ez dugulako: alderdi bezala funtzionatzen da erakundeetan, eta hori ezinezkoa da, eta ez da demokratikoa. Oiartzungo alkatea alkate da, edozein koloretakoa dela ere. Eusko Jaurlaritzan eta diputazioetan askotan koloreari begiratzen diote erabakiak hartzeko garaian.

Erabaki garrantzikiotan nozitu al duzu?

Baditugu kasu nabarmen batzuk, azpiegiturako inbertsioetan batipat, nahiz eta erabaki arruntagoetan beste edozein udal bezala errespetatuak garen. Praktikan, horretan okerrenak PSEkoak dira, eta EAJkoak gero. Horiek beren astoari egiten diote arre, beti.

Kiroldegia egiteko, adibidez, ez genuen arazorik izan. Baina alderantzizkoa saneamenduan gertatu zitzaigun. Kolektore berria egiteko proiektua egin genuen, ibaia garbitzeko, Madrilen MOPUren laguntza eskuratua geneukan —gurekin oso ongi portatu ziren, egia esan behar bada— eta

T A N T O A

Denon alkatia


Gaztetan Arrasaten ikasketak burutu ondoren, atzerrian ibilia da lanean Joanito Iñarra, baina bere sustraiak Euskal Herrian zituenez itzuli egin zen. Oiartzungo kalean sortua, Postako Hermenegildoren semea, 54 urte ditu, ezkondua da eta seme baten eta alaba baten aita.

Euskal kutura, hizkuntza, langileen arazoak... betidanik izan dira Jonen kezkak. Ordu asko eskainia da «Ez dok Amairu» taldearen teknikari bezala, Xabier Lete, Julen Lekuona eta abarren ahotsak Euskal Herriko txoko askotan ondo entzun zitezten. LAB sindikatuaren sorreran ere parte hartu zuen Jon Iñarrak.

Orain bezala orduan ere ez zen geldirik egotekoa eta Oiartzunen antzerki talde

bat osrtzeari ekin zion beste lagun batzuekin batera: «Intxixu» taldea hain zuzen. Antzeslanak prestatzeaz gain herrian ekitaldiak ere antolatzen zituzten —bertsolariak, kantaldiak, eta abar— 70eko hamarkada hartan.

1978an Oiartzungo Haurtzaro Ikastolako lehendakari izendatu zuten. Garai zailak ziren haiek, eta hala ere ikastolak herrian aurre-rapauso handia eman zuen. Ordurako Jonek Pasaiako lantegi batean egiten zuen lan. 1983an zanpatu zuen lehen aldiz udaletxea Jon Iñarrak, zinegotzi bezala hautatua izan zenean. Lan on eta iraunkor bat eginez, herritarren aurrean irabazitako konfidantzaren eragina berehala ikusi zen: 1987an lehenbiziko aldiz alkate



Xabier Landa
Oartzungo
zinegotzia

aukeratu zuen Oartzunek. Orain hasten duena hirugarren legegaldia du, jarraian.

Patxarako gizona eta atsegina, pipa erretzen aurkituko duzue udaletxean, botila bat ur aldamenean duela. Berdin zaio gaztetxeko bilkura batera joan, rokeroeekin solasean aritu edo zahar etxeko gora-berehez aritzera bertara joatea. Arkaleko ijitoen patriarkak ere oso alai egiten dio kaso, «señor Joanito» deituz.

finantziazioaren erdia edo Añarbeko mankomunitateak edo Diputazioak eman behar zuen. Gu ginen hama-hiru udaletan proiektua bukatuta eta Madrilen onartuta geneukan bakarrak, eta Donostiako alkateak Añarben botoen %60 daukatelako, PSEren erratzak baztertu egin gintuen.

Mankomunitateen planteamenduekin ez al zaude ados?

Udalari autonomia kentzeko joera dago. Udalak histori-

koki —eta baita legez ere— Euskal Herrian garrantzia berezia dauka. Mankomunitateen bidez udalei autonomia eta erabakitzeko ahalmena kendu nahi zaie, erakunde handiagoetan sartu eta alkateak *public relations* batzuk bihurtu. Oker bat da. Planeamendua elkarrekin egin behar dugu, baina bakoitzak gestionatu behar du berea.

Donostiako edo Oretetako auzo bat bihurtu nahi gaituzte, eta guk ez dugu

onartuko. Uraren kasuan, Añarbeko urtegia eta horren azpiegiturak kudeatzeko mankomunitatea behar da, baina ura Oiartzuna iristean denean, geuk gestionatu behar dugu. Ez orain nahi dutena: enpresa erraldoi bat antolatu eta udalak bere herrian gertatzen denaz prentsesaren bidez enteratu beharra. Gauza bera parke naturalekin. Gu planteamenduhorien kontra gaude, eta legez posible dugunez, uko egiten segiko dugu.

Datozen lau urteotan zer egin nahi du Oartzungo Udalak?

Oiartzunen izaera portuaren eta industrian oinarrituta zegoen, eta garaia aldatu egin dira: orain datozen enpresak komertzialak edo


«Eusko Jaurlaritzan eta diputazioetan askotan alkatearen koloreari begiratzen diote erabakiak hartzeko garaian; alderdi bezala funtzionatzen da erakundeetan, eta hori ezinezkoa da, eta ez da demokratikoa»

zerbitzuetakoak dira. Guk ere aldatu egin behar dugu estrategia, garai berriei egokitu. Bere nortasuna mantendu behar du Oiartzunek, herri euskaldun eta abertzale moduan. Nekazal-turismoa garatu nahi dugu, euskal kultura bultzatu eta horren inguruan herrian dinamika eta lanpostuak bultzatu. Ongizate mialan ditugun hutsuneak ere konpondu behar ditugu.

Oiartzunek etorkizun ona daukara ikusten da. Jendeak etorri nahi du Oiartzuna bizitzera, gehienbat naturagatik eta herri euskalduna delako. Espainol erradikal batentzat segur aski ez da gustuko tokia izango, baina abertzale batentzat bai.

Ertzaintzaren koartelak hainbat gorabehera piztu zuen Oiartzunen.

Udalaren borondatearen



«HBko militanteek Oiartzungo gizartean txertatzen jakin dute, elkartean, auzoetan, bizitza osoan». (Argazkia: A. Elozegi).

kontra egindako lehenengo izango litzateke, baina legez posible dute egitea. Bi arazo nagusirengatik gaude aurka. Artistak, artisauak, merkataritikiak ekarri nahi ditugu herrira, eta poliziaren etxe batek gure plan estrategikoa hankaz gora botatzen du. Herria militarizatu

egiten dugu, alderantzizkoa nahi dugunean.

Beste aldetik, hainbeste koartel dagoen herri honetan beste bat egitea astakeria da. Goardia Zibilak eta Polizia Nazionalak hemendik joan egin behar dutela esaten bada, badituzte horiek utzitako instalazioak.

HBren politikan zerbait aldatuko al zenuke?

Alde guztietatik baztertu nahi gaituzte. Hor dago gainera prentsaren eragina ere. Gizartearekin harremanetan egotean, batetik oztopoak ipintzen dizkigutelako eta gu ere oso trebeak ez garelako, ez dakigu iristen. Esfortzu eta aldaketa nabarmena egin behar dugu jendearengana iristeko. Horretarako lehenbizikoa jendeari entzutea da. Irekitasun handiagoz jokatu behar dugu.

Eta beste aldaketa bat: zenbait sektore kritikoren iritziak bideratzeko mekanismoak malguagotu egin behar dira. Ez da samurra, baina mekanismoak hobetu behar dira, erabaki bat hartzerakoan iritzi guztiak kontuan hartzeko.

PELLO ZUBIRIA

Konfidantzazko Profesionalak

Zure inbertsioei errentegarritasuna ateratzeko, espezialistak dituzu gidari. Jar zaitez profesionalen eskutan.

AB Asesores. Konfidantzazko Profesionalak.

Xehetasun gehiago nahi bazenu, gure bulegoetara ondoko kupoia bidali edo telefonoz deitu.

AB ASESORES



BILBO: Alameda Mazarredo, 19 • Tlf. (94) 424 87 91 • 48001 Bilbo
 DONOSTIA: Fuenterrabia, 30 • Tlf. (943) 42 44 77 • 20005 Donostia
 GASTEIZ: Vicente Goikoetxea, 1-1º • Tlf. (945) 13 53 39 • 01008 Gasteiz
 IRUÑA: Paulino Caballero, 8-2º • Tlf. (948) 22 85 64 • 31002 Iruña

"AB asesores informa" Aldizkaria jaso nahi dut
 Izena:
 Helbidea:
 Tlf.:
 Herria:
 Posta kodea:

H I R U M U N D U

■ HAFEZ EL ASAD
EZ DA ARAFAT

AZKENEAN ekialde Erdiko benetako negoziazioak hasi dira, hots Siria eta Israelen artekoak. Siriak iragarria zuen: «Golanari buruz berba egiteko ez bada, gu ez gara mahaiean jarriko». Hafez el Asad ez da Arafat eta israeldarrek ondo asko dakite hori, ekialde Erdiko estatu boteretsuenetakoa dute aurrez aurre. Prozesuak berak ikustaraziko berriro, arrazoiak eta justiziak zerikusit gutxi dutela gatazka eta negoziazioetan —gehientsuenetan legez— eta emaitzak alde bakoitzak agertzen duen indarraren arabera direla. Bake prozesua lotzeko Siriarekin bakea lortzea ezinbesteko du Israelen eta horretarako siriarren Golana itzuli behar dago.

■ SOZIALISTEK
EUTSI BERRIRO

FRANTZIAKO sozialisten berpizkundearen garaia izango al da, bada? Gehiegix esatea izango da, areago eskuinak legebiltzara eta lehendakaritza erabateko nagusitasunez euren esku dituenean, baina lehenbizi Lionel Jospinek lehendakartzarako hauteskundeetan lortutako emaitzak eta ondoren iragan udal hauteskundeetan lortutako emaitza duinek, sozialistek horren gaizki ez dauden adierazle izan daitezke. Eskuin eta ezkerren arteko hiruzpalau puntuko ezberdintasuna ez da gehiegi baina nahikoa atzean geratzeko. Lau urte daukate sozialistek eta urte hauetan Mitterranden sasoi guztiz ehortzen badute, eskuinari botere tresna garrantzitsuak kentzeko moduan izango dira.

■ TXILEKO ARMADA
ZAINDARI LANETAN

CONTRERAS Txileko general erretiratuaren kasuak bazterrak harrotu ditu Hego Amerikako herri hartan. Armadak eta Pinochetek nor diren argi utzi dute berriro. Contrerasesk, orain Txileko hegoaldeko koartel militar baten babesa hartu badu ere, bere gartzela zigorra bete beharko du, hori bai seguruenik armadak jarritako baldintzekin. Contrerasen kasuak egonezin handia sortu du armadan eta komeni zaien Txileko zenbait sektorek —eskuintiarrenek— aurrerantzean ondo baliatuko dute gertakizun hau. Armadak, justiziaren erabakia onartu duen arren, hor dagoela adierazi gura izan du, garapen politikoaren bere zaindaritza egiazkoa dela eta aintzakotzat hartu beharrekoa.



Ezin ukatu, etxean jokatzeko zuten, eta garaile ateratu da. Silvio Berlusconi, masa komunikabideen erabileraren erraldoia da eta beroien erabilerak etekin franko ematen dio; ez lirateke bakarrik, baita politikan ere. Aurkeztutako hiru gaietan —pertsonek eduki dezakeen kanale kopurua, publizitatea filmetan, eta publizitate etxeek eta telebista kate desberdinak— Berlusconi garaile ateratu da. Eskuinaren barruan zalantzan agertzen zen bere buruzagitza indartzeaz gain, jadanik aurtengorako edo 1996ko hasierarako aurrikusitako hauteskunde orokorren prestakuntzari ekin dio.



Oinordekotzaren gorabeherak

FELIPE GONZALEZ-EK, Mitterandek hartutako bideari jarraitu beharko liokeela pentsatzen dute Espainiako alderdi sozialistako militante askok. Alderdiak arnasa hartu eta seguruenik aurreratuta etorriko diren hauteskunde orokorretan eskuinari irabazteko modu bakarra ei da. Sozialismoaren etxe 'bateratuan' ordea, guztiek ez dira iritzi berekoak, eta aurreko talde hori bezain indartsua den beste sektore batek, Helmut Kohl kantziler alemaniarren urratsak jarraituz, Gonzalez jauna berriro aurkeztu beharko litzatekeela irizten dio. Era batera ala bestera, erabakia Gonzalez beraren esku izango da, alderdia ez baita ausartzen alderdiak berak hautatzeak ekar ditzakeen ondorioei aurre egiten.

Oinordekotzaren aulkirako izenik ez da falta, bestalde: Borrell, Jauregi, Moran, Solana, Rodriguez Ibarra... eta beste hainbat ere prest dago Jospin izatera jolasteko. Batera ala bestera, Gonzalezen sasoiak egina bide du eta erantzuna, seguruenik, EBko Espainaren sehilekoaren lehendakaritza iragatean izango dugu.

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Libanoko gerraren ikasgaiak

HIRU urte igaro dira Bosnian gerra hasi zenetik eta gero eta antzekotasun gehiago ditu Libanon hamalau urte luzez iraun zuenarekin, bai gerrak hartu duen bidegatik baita nazioarteak emandako erantzunarengatik ere. Beraz, inor harro senti ezin daitekeen gerra hartako ikasgaiak erabil daitezke Bosniakoari amaiera emateko.

Lehen ikasgaia gerra etnikoetan baketze tropak edo indar neutralak baino gauza ezinezkoagorik ez dagoela da. Horrela gertatu zen Libanon EEBBetako 'marine'ak joan zirenean eta horrela gertatu da Bosnian Nazio Batuetako tropekin. Alde batek etsaitzat jo ditu. Beraz, nazioarteak une honetan Bosniako misioa 'gogortzea' erabakiko balu, hobe luke aurretik esatea noren alde jokatuko duen, bertakoek noren alde jokatzen ari den esan aurretik.

GATAZKA etnikoa bere unerik larrienean dagoenean konpontzen saiatzea alferrikakoa da. Herri batek bere iraupe nerako borroka deia jasotzen duenean hobe bere bidetik baztertzea. Superbi-bentzia eta mendekurako inpultsoak gerra ezin dira. Gatazka etniko guztien ezaugarri nagusia da sekula ez dutela ikasten ezta ahazten ere baina nekatu egiten direla. Libanoko gerraren amaiera. 14 urte luze eta gero, musulman eta kristauak erabat ahulduta zeudelako gertatu zen, baina argi geratu behar da nork irabazi duen eta nork galdu; musulmanek irabazi zutela argi geratu zenean bakarrik amaitu zen gerra. Orduan bai, su-eten luzea mantentzen behartuko dituen behar da.



K O L D O A L D A B E
Kazetaria

Gatazkan nazioarteko tropek ezin dute euren arauekin jokatu. Libanon eta Bosnian, bertakoek hautsi egin dituzte nazioarteko gerra arau guztiak, eta arau horiek errespetatzen dituztenak inozo huts bihurtu dira, NATOren erasoak ebiltatzeko giza-ekzutu bihurtu ez direnean.

BERAZ, gerra hauetarako nazioartearen errezetarik onenak hiru osagai ditu.

Lehena: nazioarteko tropak lurralde horretatik erretiratzean, bertako aldeek irabazle eta galtzaileaz erabaki dezaten.

Bigarrena: arma embargoa altxatzea, autodeterminazioarako borrokan azken muturrera iristeko prest baitaude, irabazle edo galtzaile garbi izan arte.

Hirugarrena: Nekea puntu bateraino iritsi ondoren eskuhartu.

Horrela amaitu zen Libanoko gerra. Zerbait gehiago egin izan balitz etikoki hobe izango litzateke, baina Libanoren kasuan, ez zen nazioartean inor prest egon gehiago egiteak eskatzen zuena ordaintzeko, eta tarteko neurriek gauzak okertu baino ez zituzten egin. Gauza bera daukagu Bosnian. Gero eta lehenago onartzen baldin badugu gero eta lehenago amaituko da Bosniako gerra. Triste da onartzea baina hala da, inor ez dagoelako Golkoko Gerraren kasuan gertatu moduko aliantzaren buru jartzeko prest.

PPri alkatetzak kentzeko sozialistek galiziar abertzaleekiko akordioa errefusatu dute

BNG udaletxeen asaltora

Galiziako Bloke Nazionalista alkatetza mordoskaren giltza bihurtu da. Galizian PP nagusi da, ohi legez, baina oraingoan udal kudeaketan BNGren gorakadarekin egingo du topo, alderdi abertzale frontistak 1991ko botoak bikoiztu egin baititu. Abertzaleak sozialisten itzal bihurtu dira.

UDAL hauteskundeak medio, eta euren emaitzei begiratuta bederen, Galiziako

hiru alderdi nagusienak pozik egoteko moduan daude: Alderdi Popularrak

(PP) gorantz egin du azken hauteskunde guztiekin erkatuz gero baina 1991ko udal hauteskundeak erreferentzia hartuta 13.000 boto galdu dituzte; PSOEek 20.000 boto galdu ditu 91rekiko, baina espero zuten danbatekoarekin eta iazko europarekiko igoerarekin -144.000 boto- emaitza ona baino gehiago lortu dute; zer ešanik ez BNGri (Galiziako Bloke Nazionalista) dago-

kionez, 91ko udal hauteskundeekin alderatuta 100.000 botoko gorakada egin dute eta iazko autonomoetan baino 77.000 boto gehiago.

Baina kanpoko emaitzez gain, barrura begira itzal sendoak ageri dira, batez ere PP eta PSOEen, BNGn itzalak baino argiak nagusi baitira. Biek dauzkate barne liskar gogorrak. PPn Manuel Fraga Xuntako lehendakariak datozen autonomikoetara aurkeztuko ez dela iragarri duelako, eta bere oinordekotzak PPko jauntxoaren ametsak harrotu dituelako.


PSOEn barne urok ere saltoka datoz aspaldi, eta Paco Vazquez A Coruña alkatearen aurkako matxinada gero eta sendoagoa da. Arazo bakarra: bera da alderdian emaitza onenak lortu dituen hautagaia, eta lau haizetara barreiatzen ari da Kalanunian eta Galizian, Maragall eta berari esker, lortu dituela PSOEek emaitzarik onenak.

Baina bere jauntxo jokoarek ez diote batere laguntzen aspaldidanik barne borroketan murgilduta dagoen alderdiari. Esate batera, Galiziako sozialisten idazkari nagusiaren postu-



Galiziako abertzaleek 91ko udal hauteskundeetako emaitzak bikoiztu egin dituzte.

**BOTO
ETA
ZINEGOTZIEN
BANAKETA
GALIZIAN**



GALIZIAN

	Botoak	%	Zinegotziak
PP	757.025	47,84	2.229
PSOE	421.771	26,6	951
BNG	208.152	13,5	426
EU-UG	44.743		30
BESTE			296

	A CORUÑA			LUGO			OURENSE			PONTEVEDRA		
	Botoak	%	Zinegotziak	Botoak	%	Zinegotziak	Botoak	%	Zinegotziak	Botoak	%	Zinegotziak
PP	265.817	42,43	637	132.423	56,6	505	114.888	52,5	587	234.897	48,48	500
PSOE	209.153	33,39	370	43.721	18,7	156	52.269	23,9	230	116.628	23,18	195
BNG	70.456	11,25	134	30.445	13,01	77	32.747	14,9	100	74.504	14,81	115
EU-UG	19.764	3,16	20	8.263	3,53	4	3.431	1,57	1	13.285	2,64	5
BESTE			121			45			48			82

tik, eta batzorde eragilearen iritzia kontuan hartu barik, irailerako ezohizko kongresua antolatu du. Funtsean militanteen ahotsa ezabatu gura izatea egotzen diote sektore kritikoei eta tankera honetako erabaki eta jarre-
rak, alde aurretik jota da-
goen alderdia hilerrira eroa-
tea dela azpimarratzen dute.

Baina bi alderdi espainiarrek jasotako danbatekorik gogorrena galiziar abertzaleen eskutik etorri da, BNG Galiziako udal bo-
terean benetako giltzari bilakatu baita. Oraindik ere BNG urrutiko dago 1993ko
autonomikoetako bere hautes-
gailurretik, baina 1997ko hauteskunde auto-
nomikoetarako aurrikuspenak ezin-
hobeak dira, batipat sozialisten
noraiea ikusirik, baina baita PPre-
n boto xume

asko ere eskura ditzakeela-
ko, Pontevedran ikusi den
moduan. Hiri honetan BNGk
nabarmen gailendu du PSOE
eta bigarren indar moduan
geratu da. Miguel Lores Pon-
vedrako BNGren hautagaiaren
iriziz, «% 25eko aldeaz gai-
nditu genuen 93ko gure boto
gailurra eta boto horietako
asko PPrek datozkigu, PPre-
n boto erosketak jadanik ez
duelako horrenbeste indar
eta jendea PPrek gero eta
gutxiago eskain dezakeela
ohartu delako; lehen ere
esana genuen Pontevedra
ez zela eskuintiarra eta
orain agerian geratu da. Al-
katetza ken diezaiokegu
PPri sozialistek nahi izanez
gero».

Hor dago gakoa hain zu-
zen, PSOE eta BNGren ar-
teko akordio ahalmenean,


Sozialista askok -katalanek batez ere- ez dute ulertzen nola PSOE euskal eta katalan nazionalismo eskuintiarrekin ari den, eta ez duen berdina egiten galiziarrekin, areago ezkertiarrek izanik

BOTOAREN BILAKAERA GALIZIAN

	Udal. 91	Orok.93	Auto.93	Europ.94	Udal 95
PP	570.417	734.203	746.961	624.761	757.025
PSOE	441.049	549.974	337.048	277.573	421.771
BNG	109.144	126.254	268.248	131.361	208.152
EU-EG	-	-	-	-	44.743
UG-EU	-	73.843	44.614	-	-
PSG-EG	39.699	-	-	-	-
CG	-	-	5.952	4.384	-
UCD	-	-	-	-	-
EU	22.907	-	-	58.220	-
UG	-	-	-	-	-
PNG-PG	-	-	-	-	-
CDS	18.055	23.439	-	6.811	-
CPG	-	-	-	-	-
CNG	113.771	4.527	-	-	9.397

Loresek Pontevedrarako proposatutakoak Galizia osorako balio baitezake. Udaletxe mordo batean BNG eta PSOEren arteko akordioa lortuz gero, PPre-
n alkateek jai izango dute. Baina BNG da orain PSOE-
ren etsairik hurbilena eta, bere izaera espainiarraz gain, BNGri alkatetzak ematean honen izaera gehiago indartzearen beldur dira sozialistak.

PP, PSOE eta BNGk iazko hauteskundeekiko emaitzak hobetu dituzte baina, BNGren alde, popularrak eta sozialistak barne arazoetan murgilduta daude.



Vazquez sozialistak emaitza onekin eskuratu du A Coruñako alkatetza, baina militanteen kopuru handia aurka dauka.

PSOEk, militante asko nolabaiteko akordioaren alde egon arren, iragarria du ez duela galiziar abertzaleekin akordiorik sinatuko eta batzorde eragileak udal edo lurralde arduradunen gain utzi du bata edo bestearekin ituna egiteko ahalmena.

Saltsa-maltsa honetan guztietan izan da Vazquezek akordiorako hasieratik erakutsi zuen erabateko aurkako jarrera. Berritzaileek, oster, akordioaren aldekoak izan arren beronen ezintasuna azpimarratzen dute: *«Ezin dugu BNGrekin akordio orokorrik egin, une honetan ez baitugu adosteko egitaraurik, ez zuzendaritzarik eta, barantzago joko gero, alderdirik ere ez».*

BNGk PSOerekin akordio nagusirik lortu ezean bere zinegotzien alde bozkatuko zuela iragarri zuen ekainaren 3an egindako Kontseilu Nazionalan.


Estatuko zein Galiziako sozialista askok –katalanek batez ere– ez dute ulertzen nola Madrildik, PSOEk euskal eta katalan nazionalismo eskuintiarrarekin paktatzen duen, eta ez duen berdina egiten galiziarrekin, areago ezkertiarak izanik. Baina Vazquezen indarra Galizian oraindik erabakigarria da eta, beraz, akordioen batzuk egingo dituzten arren Galizian bakoitzak bere aldetik joko duela aurrikusten da.

XABIER LETONA



La Casa del Café

— Juan Irujo S. A. —
D O N O S T I A



Euskaraz mintzo da Arabako lurraldea

euskaraz mintza gaitezen Arabako jendea.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Joseba Mandaluniz, Maier enpresaren teknologia zentro berriaren zuzendaria

«Produktu onak eta berriak, hori da merkatuak lotzeko bide bakarra»

Maier Technology Center da Busturialdeko Maier enpresak ekainaren 3an inauguratu berri duen teknologia eta garapenerako zentroa. Berau aurrera ateratzeko 600 milioi pezetako inbertsioa egin du eta bertan 52 pertsonak jardungo dute lanean. Mandalunizek eskaini dizkigu teknologia eta berorri buruzko xehetasun gehiago.

Euskal enpresetan eman al zaio beharrezko garrantzia teknologia-ikerketari?

Ezetzkoan gaude, eta horren frogara da Euskal Herrian ez dagoela balio erantsi handiko bertako puntako produktuak sortzen dituen enpresa oinarriarik; horregatik gara nagusi alor honetan subkontratazio enpresak.

Historikoki ahalegin oso handia egin izan da ekoizpen arloan baina ez nahikoa teknologi eremuan. Jaurlaritzak, bere garaian, eman zuen egoera honen berri eta, teknologia zentroak sortuz, eremu hau bultzatzeko saioa egin zen baina enpresak akaso ez gara gai izan teknologia zentroek duten po-


tentzialitate baliatzeko.

Eta Maierren nondik datorkizue teknologiarekiko ardura hori?

Maierren ere giza baliabideak teknologia eta garapenera zabaltzeko zelanbaiteko beldurra eduki ohi dugu, batez ere sasoi txarretan berau mantentzea gaitza izan zitekeelako. Hala ere, egin izan ditugun plan estrategikoetan beti geratu da argi giza baliabide tekniko eta garapenerako inbertsio onenetakoak direla.

Horregatik, hain zuzen, gure plan estrategikoetan giza baliabide teknikoen beharra ikusi izan dugunez, Maier Technology Center sortu dugu.

Eta teknologi eremuan



Joseba Mandaluniz Maier Technology Centerreko zuzendariaren ustez, teknologia zaintzea enpresen geroa lantzeko modua da.

dagoena, Euskal Herriar edo MCCn dagoena, lehiakorra al da?

Oso desberdina da, bai sektoreen arabera bai enpresen tamainaren arabera. Guri dagokigunez, teknologia lehiakorra dugu erdi mailako zailtasuneko azpimultzo mailetan. Baina oso gaitza zaigu konplexutasun maila handi samarreko funtzioetan multinazional handiekin lehiatzea, azken batean hauek baliabide oso garrantzitsuak bideratzen bai-

tituzte ikerketa eta garapenerako, eta horrez gain beren fakturazio kopuruak gureak baino askoz handiagoak dira.

Nola banatu duzue teknologi zentroa eraikitze-ko egin duzuen 600 milioi pezetako inbertsio hori?

Hiru zatitan banatuta dago. Alde batetik, pabiloia, lurrrak, egoitza eta instalazioa, guztiak 351 milioi pezeta; bestalde, industri hornikuntza 173 milioi eta azkenik teknologia berria ezar-

■ Sasoi txarretan mantentzea gaitza izatearen beldur izan gara, baina egindako plan estrategikoetan beti geratu da argi giza baliabide teknikoa eta garapenerakoa inbertsio onenetakoak direla

tzea 76 milioi pezeta. Zentroak 52 pertsona izango ditu eta horietatik 29 Maierrek bazkideak dira.

Esportazioarena gero eta eremu garrantzitsuagoa da euskal industrietarako eta zuengan ere gero eta eragin handiagoa du.

Egia da, baina gu oraindik ez gara MCCko beste enpresa batzuen mailara heldu eta gaur egun %40ra iristekotan gaude. 1990ean 1.060 milioi pezeta balioan esportatu genuen eta aurtengorako 2.852 milioi pezetara iritea aurrikusita dago, hots, gure salmenten % 40,7.

Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Holandan daude, batez ere, gure erosle nagusiak. Sektoreka aztertuz automobilarenak gero eta garrantzi handiagoa du salmentetan, aurten saldu-takoaren % 82 automobilaren sektoreak gehi haren laguntzaileek irentsiko dute. 1978an SEATEkin hasi ginen baina gaur egun ia auto-etxe guztientzat ari gara.

Maier automobilaren mundura erabat bultzatuko duen azken pizgarria izango al da teknologia zentroa?

Inolako zalantza barik, automobilaren sektoreak duen eskari maila erakarpen handikoa da, eta honek batzuetan beste sektore batzuk behar legez ez zaintzera eramaten gaitu. Nolanahi ere, beste sektore batzuek arduratzea ere buruan dugu eta gure marketin planetan au-

rikusita dugu hori guztia: elektrogailuak, informatika, aisia eta kirola eta, azken batean produktua ondo garatzeko ahalmena eduki dezakeen edonor erakarri gura dugu.

Hamarkada bonen hasieratik gaur egunera arte, Maier enpresak bere salmentak bikoiztu ditu; etorkizuneko aurrikuspeneak joera berdina erakusten dute?

1990ean 3.298 milioi pezetako salmentak izan genituen, 1994ean 6.019 milioi eta aurtengorako 7.000 milioiko salmentak aurrikusita ditugu; horrek esan gura du bost urte hauetan % 105 inguru hazi ditugula gure salmentak. Aurtengorako, iazkotik salmentak % 10 haztea aurrikusi dugu.

Emaitza hauekin gure MTCari (zentro teknologikoa) eutsi eta bultzatu ahal izango dugu, baina ez dut uste aurrerantzean iragan bosturtekoan izandako hazkunde mailarik lor daitekeenik.

Nola eragiten du teknologi ikerketak hazkundera?

Teknologia berrien ezagutza eta esperimentazioaren bitartez, gure eskaintza maila igoko duten produktuak lortzekotan izango garela koan gaude. Produktu berriak eta onak eginez lehia-kortasuna lortzea, hori da merkatu berriak lotzeko bide bakarra.

XABIER LETONA


DIRUAREN HOTSA

Lana banatu, baita aberastasuna

LANGABEZIA maila izugarriak, zuzenean izan du eragina euskal langile klasearen desbrertebrazioan. Gizartearen dualizazioa egunetik egunera gordin-tzen ari da, enplegu duina dutenen eta ez dutenen arteko aldeak areagotzen bait doaz.

Azken boladan, toki desberdinetatik bideraturik entzun dira lanaren banaketaren aldeko hausnarketak. Baina beti, diskurso erretoriko hutsean kokaturik, errealitatea aldatzeko proposamenak zehaztu eta bultzatzeko asmorik gabe.

GIZARTEAREN dualizazioa, gazterien etorkizunik eza-lan finkorik ez du % 15ak ere-, langabezia, emakumeek jasatzen duten *apartheid* laboral, pobrezia eta bazterketa soziala behin eta berriz aipatzen diren bitartean, lan kontrarreformak eta gizarte-prestazioen murrizketek etengabe egiten dute aurrera, eta enpresa etekinek gehikuntza handia bizi dute. Gainera, etekin hauek, funtsean, inbertsio espekulati-boetara bideratzen ari direnez, aipatutako egoera larri guztia areagotu egiten da, sistemaren izaera demokratikoa bera auzitan jarritz.



J.M.
ARIZNABARRETA
ZUBERO

LABeko komunikazio arduraduna

LANGILERIAK eraso bikoi-tza jaso du lan merkatuari begira, alde batetik gero eta langile gehiago lan merkatutik kanpo, eta bestetik, lan merkatuan daudenen artean gero eta kopuru handiagoa baldintza prekarioetan, hots, lan indarraren debaluzioa. Honek, zera suposatzen du, langileriaren poltsikoetatik hartzen diren errentak kapital-errenta bilakatzea.

Lanaren banaketaren inguruko hausnarketei loturik, aberastasunaren banaketa dago ezinbestean. Lana banatu, bai. Baina, baita aberastasuna ere. Eta bide horretatik urrats errealak emateko borondaterik izan ezker, badira bizi dugun errealitatea jadanik aldatzeko har daitezkeen neurri zehatzak:

Lan-ihardunaldia murriztu, soldaten maila mantenduz; lanordua estrak desagertarazi; Aldizkako Lan Enpresei tinko egin aurre; aberastasunaren berbanaketaren aldeko politika fiskala gauzatu; iruzur fiskal enpresariala argitu, zigortu eta desagertarazi; langabetuentzako soldata soziala sortu eta gizarte prestazioen euskal sistema publiko unibertsalera eratu.

Hausnarketa hutsetatik eginkizun zehatzetara pasatzea eskatzen du gero eta pertsona gehiagok nozitzen duen egoera sozioekonomiko larriak. Ezin da gehiago itxaron, neurriak hartu behar dira. Hobe gaur bihar baino.

Etorkizunaren aldeko apustua igandean Armentian egingo den Araba Euskaraz 95ek

Euskaraz haziz doa zazpigarren alaba

Armentiako zelaiak euskaltzaleen bilgune izango dira, berriro ere, igande honetan. Eta Armentiako ikastolari zuzenduko zaizkio jaiari bildutako sotsak. Hurrengo apustuari heldu ahal izateko: aureskolako ikasle kopurua bikoiztea. Hona Araba Euskaraz 95eko ardatz nagusiak.

GARAI latzak ezagutu zituzten ikastolek iaz Labarkan ospatu zen Araba Euskaraz-eko aurreko egunetan. Urtebete berandugo ezin esan Arabako ikastolen arazoak erabat konpondu



Denboraz aureskola eta batxilergoaren arteko hutsunea betetzeaz ziur dira Armentian. (A: Olalde).

direnik, baina Hezkuntza Sailean izan den aldaketarekin batera gauzak aldatzen hasi direla sumatzen dute Armentia ikastolan.

Ekainaren hemezortzian egingo den jaiarekin lortuko duten dirua beharrezkoa dute aurrera egiteko edo, ikastolako ordezkarien hi-

tzetan, «dugun zuloa abalik eta txikien egiteko», baina hiru urte lanean egon eta gero etorkizunerako itxaropen izpi bat ikusi dute behintzat.

Armentia ikastola duela hiru ikasturte sortu zen guraso talde batek, irakasleek, Ikastolen Federazioak eta

Konfederazioak bultzatuta. «Kolektibo guztiek egindako lanari esker atera zen aurrera proiektua, batek butsekin egun dena izango», adierazi du Joxe Gonzalez Olaizolak, Araba Euskarazeko koordinatzailea eta Armentiako irakasleak. Ko-

Hamabost urte eta gero hau!

Ramon Basaraz Arabako Ikastolen Federazioko langile bakarra zen 1981. urtean eta lehenengo Araba Euskaraz-eko ekonomia eta koordinazio komisioan lan egin zuen. Egun Armentia ikastolan lan egiten du eta aurtengo jaiaren kontuak eramaten laguntzen du. Behin bidea egin da aurrera jarraitzea errezagoa dela esan ohi da. Jarraitzea ez da batere samurra izan baina hasiera zailagoa izan zen zalantzarik gabe. Arabako ikastolen munduan bidea zabaldu zuten horiek omenaldia merezi dutela pentsatu dute jaiaren antolatzaileek.

Aurtengo antolaketare-

kin konparatuta, oso desberdina izan al zen 81eko Araba Euskaraz?

Garai hartan ez genuen aurkitu halako ekitaldi batean lan egiteko prest zegoen jende asko. Zailena, dena den, Araba Euskaraz izeneko erokeria hori zer zen adieraztea izan zen.

Helburu ekonomikoa izan al zuen Arabako ikastoletako lehenengo jai horrek?

Batzuek hori aurpegiatu ziguten. Antolaketa lanean nortzuk geunden ikusita ikastola pribatuentzako dirua ateratzeko jai bano ez zela pentsatu zuen batek baino gehiagok. Baina helburu nagusia ez zen di-

rua lortzea, Gasteizen, Araban, euskararen aldeko jai handi bat egitea baizik. Zerbait egin beharra zegoela oso argi ikusten genuen baina euskara aldarrikatzeko, besterik gabe. Ez genuen uste horrelako zerbait izatera helduko zenik.

15 urte beranduago euskarak eta ikastolek bonen beharra izango zutela uste al zenuten?

Ez, eta triste samarra da batez ere hamabost urtetan ikastolen egoera ez delako gehiegi aldatu. Horrela

bizi behar dugula ematen du. Armentia egoera ikusita oraindik 1981. urtean gaudela ematen du: kontzertaziorik gabe, lokala eta irakasleak ordaintzeko arazoekin... Garai hartako aldarrikapenak eta orain egin behar direnak ez dira horren ezberdinak: lokal egokiak, heltzen ez diren diru laguntzak...

lektibo guztien lanari esker sortu zen eta aurrerantzean ere berdin jarraituko duela ziurtatzeko egitura juridiko berezia eman zioten ikastolari sortzaileek: ikastola elkarte kooperatiba mistoa da, hau da, guraso eta ikasleen arteko kooperatiba.

Ikastola martxan jartzeko lan handia egin behar izanagatik ere, geroko lana ez zen errazagoa izan. Lanean aritu ziren lehengo bi urteetan legeztapena lortzeko borrokatu behar izan zuen ikastolak; bi urte horietan inolako laguntzarik ez jasotzeaz gain irakasleei espedienteak zabaldu zitzaizkien. Era berean, hiru urtez egon da Gasteizko ikastola hau ino-

lako kontzertaziorik gabe. *«Egia esan, egun ere ez daukagu kontzertaziorik baina Hezkuntza Sailean egon den aldaketak garai batean egondako borondate eza alde batera utzi duela dirudi eta datorren urterako zenbait gela kontzertazioa lortuko dugula ematen du».*


Hutsuneak betetzea helburu

AURRESKOLA eta batxilergoaren artean dagoen hutsunea betetzea du helburu, besteak beste, Armentia ikastolak. *«Denborarekin maila guztiak osatuko ditugu, zazpi urte barru bezkuntzako ziklo osoa izango dugu».*

■ Armentia ikastolak bi urte behar izan zuen legeztapena lortzeko; egun, legalizazioa lortuagatik ere ez dauka gela bakarra ere kontzertaturik

Diru laguntzarik gabe eta gastu anitzez zailtasun handiak ditu ikastola gazteak, baina noizbehinka bidean sariak ere aurkitzen dituzte langileek. *«Datorren ikasturterako aurrekolako matrikula bikoiztu egin dugu jadanik, honek gure ikastolak etorkizuna duela esan nahi du».*

Aurtengo Araba Euskaraz-en leloak luzatutako apustua ez dagokio Armentia Ikastolari bakarrik, arbarren euskararekiko kontzientziari... Oraindik Arabako ikastola guztietan gertatzen den bezala, Armentia ikastolako ikasle gehienak erdaldunen seme-alabak dira eta horietatik asko kanpo-




Ramon Basaraz eta berarekin batera 1981. urtean lehenengo Araba Euskaraz posible egin zutenek omenaldia jasoko dute igandean. (Argazkia: Olalde).

IBILBIDEA

1. eta 2. arean Trikitixa, bertsolariak, Joselu Anaiak, kontzertua... egongo da
3. area haurrentzako gunea. Super 1, rokodromoa...
4. area gazteentzako gunea. Kontzertuak, Bittor Aiape, Kontrairo, Betagarri, Exkixu...
5. area helduëntzako gunea, 'picnic' area. Harizti zabal batean kokatua. Egun guztian zehar trikitilariak etab. egongo dira.
6. area paseatzeko zonaldea da.

- ▶ Area guztietan zerbitzuak egongo dira: komunak, osasun zerbitzuak...
- ▶ Jantoki ofiziala ikastolako frontoian kokatu da.

LANDAZ-LANDAKO IBILBIDEA



IKASTOLA

Armentiako ikastolak bi atal ditu; aurrekologia, 3 eta 5 urte bitarteko haurrak, eta BBB eta UBI.

Aurten bertan atera da UBiko lehen promozioa.

Helburua, hutsik geratzen den tartearen denborarekin betetzen joatea da.

Ez daukate gela bat ere ez-kontzertaturik

Aurten legalizazioa heldu zaie, orain arte legalak ere ez baitziren

Duela hiru ikasturte sortu zen

Ikasleak: 80 aurrekolan eta 70 BBB eta UBIn

Irakasleak: 4 aurrekolan (bat gela bakoitzeko), 7 batxilergoan eta beste bi langile

Lehenengo urtean zeuden ikasleak: 40 aurrekolan eta 30 BBB-UBIn

koak. Ikastolak, beraz, euskalduntze prozesuaren partaide garrantzitsuak dira Araban. «Hiru urterekin euskaraz hitz erdirik jakin gabe D ereduaren sartzaren haurrek urtebetean

ikasten dutena ikusita, honek merezi du».

Gasteiz aldeko ikastola gazteak behar handiak ditu helburu guztiak bete ahal izateko, «eta horregatik onartu da Araba Euskaraz ateratako dirua guretzat izatea, gure ikastolak gastu handiak izan arren etorkizuna ere baduelako. Behar guztiei aurre egin ahal izateko eta gure etorkizun ekonomikoa oso argia ez denez jaiaren prestakuntzaren zurrunbiloan murgildu behar izan dugu eta ziur aski errekorra ezarriko dugu, lanean hasi eta bi urte t'erdira bakarrik horrelako makro-jai antolatzea». Lan honetan ez dira bakarrik aritu, Gasteiz eta Arabako euskaltzaileen laguntza ezinbestekoa izan da antolakuntza burutu ahal izateko. «Oso gauza polita gertatu zaigu: Armentiako lagun talde batek igande-

rako bere laguntza osoa eskaini digu. Horren berri txikia izanda oso garrantzitsua iruditzen zaigu».

Arabarren ordua

BESTE herrialdeetako euskaltzaileen laguntza ezinbestekoa izango da aurten ere ekainaren 18ko jaiak helburuak bete ditzan. 1981. urteko irailaren 13an, lehenengo Araba Euskaraz-en bost mila lagun inguru hurbildu ziren Olarizura; igande honetan askoz ere jende gehiago bilduko bide da Armentian, baina ordezkariak diotenez, «Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats-era bertako baino

kanpoko jende gehiago joan obi da. Hori normala eta ona da elkartasuna adierazten duelako, baina arabarrek ere bere etorkizunaren alde egiteko ordua da.

Prestaketa lan honetan ez dena arrosa izan, ordea. Jaiarako egun gutxi falta zirela Gasteizko Toki Eder ikastolak Armentiakoak beraiek izan duen jarrera salatu zuen. Toki Eder ikastolak sare publikoan sartua zer beharrak aginduta, baina bere proiektua bertan gartzeko zituen oztopoak ikusita kooperatibismoaren bidea bueltatzera erabaki zuen. Armentia Ikastolari bere ikasleak bertara era-

Arabako ikastolak bereuskalduntze prozesuan partaide garrantzitsuak dira; Arabako ikastola gehienetan bezala Armentian ere ikasle gehienak erdaldunen seme-alabak dira, asko kanpokoak

matea proposatu eta gero ezetza jaso zuen. Armentia Ikastolak, Federazioak eta Konfederazioak ematen duten arrazoi ekonomikoa da. «Gure ikastolan 180 haur horiek sartzea ehun milioitik gorako gastua da eta Sailarekin negoziatzen aritu garen arren, ezin izan dugu ezer konpondu. Gure ustez, haur horiek ekartzea ikastola finkatzea litzateke eta horregatik egon gara zortzi hilabetez borren alde borrokatzen. Dena den, ez dugu ulertzen zergatik esaten duten ez dugula beraiek gure ikastolan sartzerik nahi, asko gure proiektorenen barruan daude jadanik, martxan jartzen laguntzeaz gain askok seme-alabak bidali dituzte hona batxilergoa egitera», azaldu du Armentiakozuzendariak. Toki Ederreko bozeramaile



D ereduan sartzen diren haur gehienak erdaldunen seme-alabak dira eta urtebetean alde handia egiten dute. (A.: Olalde).

den Natxo Gutierrezek, berriaz, arrazoiak bestelakoak direla uste du: «Honi buruz egin genuen lehenengo bileran arrazoi sozialak aipatu ziren ezetza emateko, hau da, jende mota zehatza nahi dute ikastolan, eta gu, antza, ez gara beren gus-

tukoak». Jazotakoa salatu, azaldu eta zabaldu nahi du Toki Eder ikastolak, Armentiak egin duenak elkartasun falta erakusten baitu, beraien ustez. «Hala ere, argi utzi nahi dugu ikastolakooperatiba eta federatuen alde jarraitzen dugula. Ez

gaude Araba Euskaraz egitearen aurka eta hau argi geratzea oso garrantzitsua da, baina aurten antolatzaileria den ikastolaren jarrerara salatu behar dugula uste dugu».

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI



MAPFRE

OHIZKO ASEGURUETAZ GAIN:

- INBERTSIO FONDOAK
Interes altuenak, erretentziorik gabe
- JUBILAZIO PLANAK
Aurrezteko modurik hoberena

Xehetasun gehiago nahi bazenu, bulego hauetan gauzkazu:

IGARRI Aseguroak
Joxe Mari Loiarte
Gernikako Arbola, 2
650197 • TOLOSA

XABIER ETXEBESTE
Avda. Navarra
653835
• TOLOSA •

MIRIAM eta PELLO
ARIZNABARRETA
Txermin, 21
692219 • BILLABONA

XABIN MUJIKA
Dr. Huizi, 4 • 592307
Kale berria, 11 • 300699
• ANDOAIN •

Euskal Herriko Lehen Goitibehera Lasterketa irailaren 2an

GOITIK BEHERA, MOTORERIK GABE

Hiru gurpileko goitibeherak prestatzen hasi dira. Goiti Behera elkarteko kideak Lapurdiko San Inazio lepotik barna antolatzen duten lasterketarako. Seguritate neurriak aztertuz arrakastatsu nahi duten ekitaldi horrentzat lanean, hasi dira. Ez da, dudarik gabe, Lapurdin ezaguna Goiti Behera, promozio ekintza honek horren aldatzeko asmoak ditu.

GOITIBEHERA lasterketak ez dira ezagunak Lapurdin eta herriko festetan Hegoaldean arrakasta handikoa den praktika horri bizia eman nahi izan diote. Izan ere, joan den martxoan gazte talde batek Goiti Behera elkarte sortu du kirol horren promozionatzeko. «*Hasiera emateko ekintza berezia antolatu behar genuen jendeak ikus dezan gauza serioa dela, ez dugula txantxetako lasterketa bat nahi*». Horrela etorri zaie Euskal Herriko Goitibehera lasterketa antolatzea.

Seguritate neurri bereziak

LASTERKETA hori irailaren biam iraganen da Azkaindik Sarara doan maldan behean, San Inazioaren lepotik barna joanez. Elkartearen

presidenteak, Gaizka Arratek kontatu digunez, zenbait tokitan istripu larri batzuk gertatu izan dira eta ondorioz lasterkaldiak debekatuak izan: «*Horrelakorik gerta ez dadin eta bertako jendeak konfiantza har dezan, gure irudiko istripu franko errodamenduetan gertatzen direnez erabaki dugu bizikleta, zein autoko gurpilak erabil daitezkeela, beti ere gurpilaren diametroa 50 zentimetro baino guttiago-koa baldin bada*».

Horrelako gurpilak erabiliz arrastak jar daitezke, hau da istripuen arriskua ttipituz noski, baina abiadura erraztuz, kontuan hartu behar baita horrelako lasterketan hori dela apreziatu parametroa. Neurriak aipatzen hasi garenez, goitibeherak errespetatu beharko ditue-



Bizikleta zein autoko gurpilak erabil daitezke, ez besterik.

nak eman beharko ditugu. Lehenik lasterketan parte hartuko duten goitibeherak hiru gurpilekoak behar dute, luzera 150 zentimetrokoa beharko du eta zabalera 120 zentimetrokoa. «*Horiek dira onartuak izan diren*

neurri handienak. Noski, tresna bakoitzak bi ibiltari beharko ditu, kasko banarekin».

Federazioa helburu

GOITI Behera elkartearen lehen asmoa izan da kirol



Azkaindik
Sarara doan
malda
beheran, San
Inazioaren
lepotik barna
joanez,
jokatuko da
lasterketa.
(Argazkiak:
Ixabel
Etxeberria).

hau ezagutaraztea Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan, horretarako promozio kanpaina hasiko dute eta babesleak bilatuko. Baina geroztik Ipar eta Hegoaldeko goitibehera zaleak bilduko lituzteen federazioa

antolatzeko asmoa ere aipatu digute, «*baina momentuko, gure helburu nagusia da lasterketa hau behar bezala antolatzea, Sarako Herriko Etxeko baime-na dugu, eta partehartzaile bakoitzari 30 libera (800*

pezeta inguru) eskatuko ditugu gastuendako.

Beraz, lasterketan parte hartu nahi duen oro bere goitibehera egiten hasten ahalko da, irailaren 2an goizko ordulariaren kontrako lasterketan parte hartzeko, hortik aterako diren 30 hoberenek bakarrik parte hartuko baitute.

Nahiz eta abentura galanta izan goitibehera erakitzea eta lasterketa batean parte hartzea, ez dira denentzat sariak izanen. Hala ere,

partehartzaileen borondatea eskertzeko gisa sariak izanen dira lasterketan aterako diren lehen hamarrentzat.

Hemen duzue kontaktua: Harrobiko etxea, 64122 Urruña. Telefonoa: 59471771. 3.500 metroko zirkuitoan parada izanen da korrikalarien irudimena eta kemena miresteko. Bi hilabete, besterik ez, gelditzen dira entrenamendu eta obretan hasteko.

IXABEL ETXEBERRIA

Parte hartuko duten goitibeherek hiru gurpilekoak behar dute, luzerak 150 zentimetrokoa beharko du eta zabalera 120 zentimetrokoa. Horiek dira onartuak diren neurri handienak



euromutua

SEGUROS Y REASEGUROS A PRIMA FIJA



ASEGURGINTZA

AGENCIA DE SEGUROS, S.L.

GRUPO VITALICIO

SEGUROS

**DIRUARI IRABAZI HAUNDIAGOA
ATERATZEKO ASEGURU MOTAK:**
Bermaturiko Irabazi Plana • Jubilazio Plana
• Pentsio Plana • E.P.S.V. •

ETA BESTELAKO ASEGURUAK:

- Ibilgailuak
- Norkberaren istripuak
- Bizitza, etab.

Foruen Etorbidea, 4 - 20400 TOLOSA - Tfno.: 65 22 20 Fax: 65 41 19
Foruen Etorbidea, z/g, behera - 20400 TOLOSA - Tfno.: 65 22 20 Fax: 65 46 77

Emakumeek euren burua defenditu nahi dute

ERASOTUAK!

Erreportaia hau lantzen ari ginela, Ibarako emakume taldeak hartu beharreko ekimenaren berria jaso genuen. Azkenotan maizegi errepikatzen diren erasoen aurrean, emakumeek euren burua defenditu nahi dute. Estatistiketan salaketa kopurua handitzen den bitartean, hainbat emakumek tratu txarrak, erasoak eta beldurrezko filme batetik ateratako egoerak bizi dituzte.

HAU testigantza erreala dugu: «Etxe ondoan nengoela hasi zen amesgaiztoa. Bat-batean norbaitek atzetik oratu eta lurrera bota nin-

duen. Ostikoka hasi zitzaidan. Nik ez nuen ezertxo ere ulertzen baina garrasika hasi nintzen. Orduan aboa estali zidan eskuarekin, 'isil

zaitez, puta!' esan zidan. Zenbait pertsiana zabal-tzen zirela entzun nuen baina ez zen inor ageri. Ordurako erasotzaileak or-

katiletan zituen prakak eta ni bereganatzen saiatzen zen indarrez. Kolpeka ari ginen baina atzetik oratuta ninduenez, ezin nuen gauza handirik egin. Alkandora nola apurtzen zen entzun nuenean, bere eskua praken azpitik sentitu nuenean, beldurra burura igo zitzaidan, gorputz osoan antzeman nuen. Halako batean, bere eskua hartu eta aboan sartu nuen atzamar bat. Nire indar

Emakumeen erantzuna

IBARRAKO emakumeek Ertzantzak aurrera eramanez ez zuen agintea aurrera eramatea erabaki zuten. Eraso sexistek grado desberdinak dituztenez, emakumeen erantzunak ere mota desberdinetakoak izan daitezke. Kaleko lotsagabekeriari aurre egiteko, 'piropoak' edota irainak botatzen dituen lagun koadrilari aurre egiteko, erantzunik onena biktimarena berarena da; senarrak edota mutil lagunak iraintzen bagaitu erantzuna banaketa izan daiteke; laneko nagusiak txantaje

sexuala egiten badio menpean duen neskari, erantzuna boikota dugu... Emakumeei ez zaigu beti interesatzen polizi edota epaitegietara jotzea gure burua defenditzeko.

Hala ere, pittin bat kezkatu nau Ibarako emakume taldearen ekintzak. Norbaiten atxiloketaren ardura instituzio espezializatuen (polizia, epaitegiak) esku uztea da egokiena. Zergatik? Teorikoki, eraso bat burutu duen pertsona susmagarrien eskubideak bermatzen dituztelako, ikerketa eta jar-

duera prozedura jarraitzen badituzte behintzat.

Ez da talde feministen asmoa funtzio polizialak betetzea. Eta zentzu honetan, Ibarako emakumeen ekintza bere horretan utzi behar dugu, alarmismorik gabe: biktimak identifikatutako eraso larri baten egilea komisaldegira eramanez zuten.

Egunotan irakurri izan diren komentarioek (Barnes Saila, soziologoak...) autoritatearen eremuan norbait sartu delako izugarritzko beldurra erakusten dute. Kritika guztietan

antzematen dena zera da: herritarren zentzunarekiko dagoen mesfidantza; hauen arabera, horrela hasiz gero lintxamendua dugu hurrengo urratsa. Bestetik, iritzi hauek instituzioetan ardura guztiak uztera gonbidatzen gaituzte, nahiz eta hauen funtzionamendu ona ez den bermatzen. Zegokionak ez bazuen ezertxo ere egin, Ibarako emakumeek ondo egin zuten gertatutakoa pasiboki ez onartzen.

ISABEL OTSOA

Bizkaiko Emakumeen Asanbladako Kidea



Ibarrako emakume taldea Araceliren erasotzailearen bila abiatu zenean zera entzun behar izan zuen gizonetzko honen ahotan:
 «Mozkortuta eta bero-bero nagoenean, beti egin dut hori».

guztiak jarri nituen bagin-kadan eta askatu ez banindu atzamarra erauziko niokeen. Aske sentitu nintzanean korrika hasi nintzen etxeko atarirantz, erasotzaileak prakak hartuta aldegiten zuen bitartean. Nire bizitzan jasan

dudan egoerarik gorroto-garriena, beldurgarriena, umiliagarriena izan zen. Odola zeridan abotik eta ama asko kezkatu zen».

Biharamunean auzokide batek «zer gertatu zitzaien atzo zure alabari?» galdetu zion amari. Ama harrituta

gelditu zen. «Haserre zegoen bikotea zelakoan nengoen», gaineratu zion auzokideak.

Ibarrako Aracelik amesgaiztoa errealitate nola bilakatzen den sufritu zuen. Etxerako bidean eraso eta bortxaketa saioa jasan baitzitu. Ibarrako emakume taldea erasotzailearen bila abiatu zenean zera entzun behar izan zuten gizonetzko honengandik: «Mozkortuta eta bero-bero nagoenean, beti egiten dut gauza bera».

Erasoa jasan duen hiru-

garren emakume honen testigantza ere hemen dugu: «Harrituta nengoen. Besaburuetatik heldu ninduen eta garrasika eta bultzaka hasi zen. 'Put a bat baino ez zara, nola egin didazu hori?'. Lurrera bota ninduen behin eta berriro eta aldegiten saiatzen nintzen bitartean besotik eta ileetatik harrapatu eta zaplastekoak ematen zizkidan, 'puta' bitza behin eta berriro errepikatuz. Auto bat pasatu zen, eta gelditzeko keinuak egin


Bilboko Harrera Zentroko zerbitzuen beharra eta etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen % 53k 10 urtetik gora irauten dute egoera horretan

Arabako Lautadan Euskaraz bizi

Zure seme alabek ere Euskaraz ikas dezaten



Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia



nizkion. 'Putabata baino ez da' obikatu zuen tipoak eta autoko gidariak ospa egitea erabaki zuen. Aldapan gora bikote bat zetorren etalaguntza eskatu nuen garra-sika. Neskak burbiltzeko keinua egin arren, mutilak besotik hartu eta beste alde-rantz abiatu ziren, gizon-ekoak irainka jarraitzen zuen bitartean. Azkenean, hurrera bota eta zera esan zidan: 'Hurrengo batean egongo gara'. Ni umiliatzea nahi zuen, beldurtzea... amorruta eta gorrotoa baino ez dut sentitzen hura gogoratzen dudana bakoitzean. Eta ezintasuna, ezintasun handia».

Kalean erasoak jasan dituzten emakumeen lekutasun hauek errealitate ikaragarria badira ere, etxean bertan tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeek bel-

durrezko filme batetik ateratako egoerak bizi dituzte. Are gehiago errealitateak fikzioa gainditzen duenean.

Bilbon dagoen Harrera Zentrora abiatu gara. Ataririk emakume bat ateratzen da. 50 urte inguru eta eguzkitarako betaurreko handiak daramatza nahiz eta eguna iluna izan. Ez da topikoa. «Eraso sexualak eta etxe giroan tratatu txarrak jasaten dituzten biktimen arreta psikologikorako programa»n ari den Belen Sarasua psikologoa eta Iruñeko Andreea Taldeko Teresa Saezek eman digute amesgaiztoen berri.

Hamar urtez tratatu txarra

BILBOKO Zentzoko laguntza behar izaten duten emakumeen profila hartu dugu. Emakume hauen batez besteko adina 35 eta 40 urte bitartekoa da, gehienak ezkonduak dira (% 60) eta seme-alabak dituzte (% 83). Hauen maila sozio-ekonomikoa baxua edota ertaina (% 84) da eta tratatu txar fisikoak eta psikologikoak jasaten dituztenak erdia baino gehiago badira ere (% 47),

tratu txar psikologikoen kasuak gero eta gehiago dira espezialista hauen iritiz. Emakume hauek jasaten duten tratatu txarren iraupena 10 urtetik gorakoa da kasu gehienetan (% 54) eta normalean seme-alabek ere tratatu txarrak jasatea (kasuen % 44) izaten da egoera salatzeko erabakitzekeko lehergailua.

Datu gehiago? Autoestimari ez duten emakumeak izan ohi dira, depresioak, beren eta seme-alaben etorkizuna beltz ikusten dute, baliabide ekonomiko eskasak, etengabeko beldur zentzazioa, loa gaiztotuta, kontzentrazio zailtasunak eta amnesia selektiboak, tratatu txarren inguruko pentsamendu obsesiboak, isolamendu soziala, errudun sentimenduak... «Ondorio hauek guztiek tratamendu psikologiko berezitu behar dute, eta % 100ek arazoa gainditzea lortu dugu», azaldu digu Belen Sarasuak.

MYRIAM GARTZIA

EUSKAL HERRIKO SALAKETA KOPURUA

1992	BORTXAKETAK	ERASO SEXUALAK	TRATU TXARRAK
ARABA	9	23	234
BIZKAIA	32	85	609
GIPUZKOA	13	21	164
1993	BORTXAKETAK	ERASO SEXUALAK	TRATU TXARRAK
ARABA	8	39	315
BIZKAIA	31	126	500
GIPUZKOA	30	37	119
NAFARROA	16	-	40
1994	BORTXAKETAK	ERASO SEXUALAK	TRATU TXARRAK
ARABA	9	38	341
BIZKAIA	26	102	529
GIPUZKOA	6	77	115
NAFARROA	30	-	133

(1) Gainera, 242 kontsulata eta 150 telefona dei jaso dira EAeko polizi egoitza desberdinetan 1994an.

(2) Nafarroaren kasuan, nahiz eta eraso sexualen salaketak egon, ezin izan ditugu datu hauek lortu, ezta 1992koak ere.

ele 15

15 urteko AEK
Elixabet Imaz
Gabriel Gatti
Fito Rodriguez

ele berria kalean!

Elixabet Imaz, Gabriel Gatti, Busturialdeko AEK, Fito Rodriguez

ele aldizkaria

Hizkuntzalaritza,
hizkuntzaren didaktika
eta soziolinguistika aldizkaria
izan zaitez harpidedun!

ae

«Hasierako Zarama harekin geratzen naiz»

Azken agurraren biharamunean euskal musikaren ikurretarik den Roberto Mosorekin bildu gara Bilbon. Gizon gazte honek agerian ditu inteligentzia, zorrotzasuna eta ironia. Luze hitz egiteko ematen du, R&R delakoaz ezezik kulturaren eta mugidaren inguruko hainbat gairi buruz ere. Oraingoan derrigorrezkoa zen taldearen bizitzaz egitea. Hala eta guztiz ere, denetariakoak joan dira etortzen elkarrizketaren harira.

Liburu bat duzu argitaraturik, «Cuentos y susedidos bastos» izenekoa, erdaraz eta euskaraz.

Amatxo laztana! Liburua! Zaramari buruz hitz egiteko prest etorri naiz, eta orain liburua.

Zure aurpegirik kritikoena ageri da hor: roc-keko izarrak, euskal barnetegiak, Kuba, pornografía eta beste baimbat. Zer esan liburuaz? Ez da zure aurpegi ezagunena.


Prestatuta neukan Zaramaren rolloa. Nire alde kritikoak? Dena nire barruan dago, baita hori ere. Gaur egun egingo banu, ez dakit, beste modu batez egingo nuke. Kritizismoa dago hor, baina

ez da kritizismo mingarria nirea, gauzen beste alde ikustea baino. Barnetegiak, adibidez. Badago beste alde hori, ligeak barnetegian. Barnetegi pilo batean egon naiz, AEKn. HABEn ez dakit nola den, baina AEKri sumentzioa eman beharko liokete euskaldunen osasun sentzialaren alde egiten duen lanagatik, besterik ez bada ere.

Zarama amaitu dela eta, idazle alde hori lantzeko asmoa duzu?

Egunero idazten dut, irratirako, eta ipuin gehiago idazteko gogoia dut. Baina Magali izeneko neskatxoa izan dut, eta ikusi dudanez, lan piloa daukat horrekin.

Liburuan eta irratiko



«Baina musika guztiak kanpokoak dira, neurri batean; ematen du batzuk Aitorrek zuzenean asmatuak direla».(Arg.: Ramirez).

saiotan nabari denez, bizkuntzarekin jolas egiteko trebetasuna duzu, erdaraz. Euskaldun berria izanik, beharbada hori oztopoa izan da euskaraz lan egiteko.

Egia da; zorionez idazleak izan ditut inguruan dena hobeto egiteko. Zaramari esker zaletasuna hartu diot euskarari, eta jarraitzeko asmoa dut. Esate baterako, inbidia itzela sentitzen dut bertso-

«Esaterako, inbidia itzela sentitzen dut bertsoalariak entzutean; ia guztia ulertzen dut». (A.: Ramirez).



lariak entzutean. Azken bolaria honetan poz handia hartu dut, zern eta esaten duten ia-ia guztia ulertzen hasi bainaiz, eta gainera oso ona iruditzen zait bertsolariak hartu duten bultzada hori.

Gainera hortxe dago egiten ari diren «mix» edo nabasketa hori ere.


Hori da eta! Musika berriari dagokionez, interesgarriena trikitixatik dator, rockaren munduan ere bai behar bada. Gutxienez hor originaltasun bila dabiltzala ikusten da, zerbait berria sortzen ari dela. Berria kakotx artean, ezer ez baita erabat berria. **Zurekin hamazazpi urteren balantzea egiteko tentazioa sentitzen dut.**

Baina beste aldetik ez egiteko tentazioa ere sentituko duzu, ez? Ze balantzeak...

Mitoak zeuden hasi zinetenean, euskaraz kantatzea, adibidez. Orain, aldiz, ingelesez kantatzen ari dira bazterretan. Printzipioz ez dut ezer horren kontra. Okerrena ez da hori. Okerrena da ez dagoela giro ingeles bat hemen Euskal Herrian, ez Espainian, eta orduan eszenatikian kanta biren artean isilik

geratzen dira, ze, zer egin behar dute? Ingelesez hitz egin publikoarekin, euskaraz, espainolez? Ez dago komunikaziorik eta nire ustez horixe da gerta litekeen okerrena, girorik ez izatea kontertzuetan. Ingelesez kantatzeaz gain, giroa hartzagoa da, oro har. Zaletasunean ere nabaritzen da, gero eta jende gazte gutxiago ikusten da kontzertuetan. Bakailoarekin konformatzen dira, eta hori lanpostu bi dira, dena mekanizaturik dago eta. Giroa galtzen ari da. Trikiaren munduan ez, behar bada.

Iparraldea aipatu izan duzu giro onaren eredu. Iparraldekoa apartekoa da. Jakingo duzue, lehen euskaraz egindako rocka hantxe hasi zen, Niko Etxart, Errobi eta halako aitzindariekin. Hegoaldeak lekukoa hartu zuen eta orain berriz Iparraldean dago gakoa. Hor aipatuko nuke Sustraia. Berbena taldeak dira, nola-



NORTASUN AGIRIA

Santurtzin jaioa, 1960an, orain Sopelan bizi da ● Alaba baten aita egin berri ● Alabaren izena Kuban entzun zuten: Magali ● Radio

Euskadiko ahots ezagunenatarikoa, eta irudimen itzela duen gizona da ● Autoan eramaten dituen musikak: Negu Gorriak, Mano Negra, Sustraia, eta Mexikoko Alba taldea ● Vazquez Montalbanen lan guztiak irakurriak ditu, aspaldion pixkat galdu duela ikusten badu ere

«Inbidia itzela sentitzen dut bertsolariak entzuten ditudanea; gainera oso ona iruditzen zait hartu duten bultzada hori»

bait esateko, baina agian berbena berrasmutzen ari dira. Azken finean Mano Negra eta halako taldeek berbena moduko zerbait egiten dute. Niretzat giro eta berotasuna dira inportanteena, eta ingelesez ez dut ikusten, igoal badagoen arren.

Zaramaren mugak, bamazazpi urte honetan, euskal rockaren mugak izan dira: kanpora nola irten eta hori guztia.


Alde horretatik bi problema daude nire ikuspuntutik. Batetik hizkuntzaren arazoa dago; bakarrik Negu Gorriak irten da kanpora gano-raz; eta hori Fermin Muguruza saltzaile oso ona delako izan da. Bestetik, adibidez katalenez egindako rocka baino hobeto joan da. Izen bat egin dugu kanpoan. Erdaraz egindakoak izugarriko harrera lortu dute: Barricadak, Escorbutok, Sociedad Alcoholicak.

Kontu zaharrak izan daitezke hauek guztiak.

Zuek joan zarete, eta joan diren beste batzuk bakarka grabatzen ari dira. Kostatu egiten da barruko barra hiltzea.

Ez ahaztu horiek profesionalak direla, eta zerbait egin behar dutela. Agian nik ere zerbait egingo dut.

Sexua, drogak eta rock and rolla, aspaldiko utopia.



«Zaletasunean ere nabaritzen da, gero eta gazte gutxiago ikusten da kontzertuetan; bakailaoarekin konformatzen dira, eta hori lanpostu bi dira, dena mekanizaturik dago eta».(Arg.: Ramirez).

Inoiz ez da benetako utopia izan. Denok dakigu zein mugak dauzkagun.

Batzuek sinetsi egin zuten, ordea.


Hasieratik izan da apustu bat Escorbutoren kasuan, adibidez. Ez dut uste rockarekin lotu behar denik batzuek aukera hori egin izana. Hain ospetsuak izan gabe engantxatu egin dira beste ba-

tzuk ere. Nork daki, igoal apustu errespetagarria da hori. Ni drogen legeztatzearen alde nago, eta halako egunen batean Bizitzeko taldean hasiko naiz lanean. Hildako gehienak hil dira, bai, xiringa, droga txarra eta halakoengatik.

HIESa agertu zenean egundoko kolpea izan zen. HIESa baino lehen

eta HIESa eta gero moduko bat nabaritu duzue eszenatokitik?

Gai honetan ezkorra izan behar dut. Arratzun, herri txikia izanik ere, kontzertua baino lehen kondoiak dohainik banatu zituzten. Kontzertua amaitu, galdetu eta bi eman zituztela! Gero Santurtzin azken egunean ikusi nuena; neska eta mu-



«Ingelesez kantatzeaz gain, giroa hotzagoa da, oro har; niretzat giro eta berotasuna dira inportanteena, eta ingeles ez dut ikusten, igoal badagoen arren». (Arg.: Marisol Ramirez).

tilen arteko harremanetan agresitibitate itzela, Franco-ren garaietan bezala: hitz gogorak eta sensibilitate gutxi, batez ere mutilen aldetik.

Eta alkohola edan ostean ez dakite zer egin... horrela ez zoazte inora, mutilok!
Berbena modu berri batzuk sortu beharko dira. Azken aldi honetan horixe

ari naiz aldarrikatzen. Sustraiak, adibidez, jotak jotzen ditu lehenik, *hard-core*-a gero, nahastua geroago; eta beti lortzen du erantzuna, beroa gainera.

Tribuen desagerketarekin loturik joan daiteke hori. Orain inork ez du bere burua punk aldarrikatzen, adibidez.

Edo tribu berrien jaiotzare-

kin. Berbeneroen tribua, zergatik ez? Betiko tribuak nahiko pasatuta daude, nahiz eta «El Mundo» egunkariak orrialde bereziak eskaini dizkien duela gutxi. Non daude? Tribuak ere birziklatu egin behar dira, Zarama bezala.

«Euskal rock erradikala» etiketa barekin enpaktatu zintuzten zuek. Hori


«Agian berbena berrasmutzen ari dira batzuk. Azken finean Mano Negra eta antzerako taldeek berbena moduko zerbait egiten dute»

ere joan da. Izan da baina inoiz balakorik?

Argi eta garbi, zerbait egon zen. Soinua-koek sortu zu ten izena, eta gu paketearen barruan egonik, etiketa bageneukan gainean jarrita. Talde ezberdinak egon ginen, zerbait komuna genuenak: motibazioa; motibazio soziala, motibazio nazionala, rockaren bidez beste zerbait lortu nahi genuen; eta denok ginen kantaldietako girokoak. Garai batean giro oso berezia sortzen zen, erreprimitu egiten ziren gehienetan. Rock and rolla permitituago zegoen, baina gustukoa genuen giro erreibindikatio hori. Gero HB oso intelijentea izan zen «Martxa eta Borroka» planteatzean, eta ona izan zen, bai HBrentzat, eta bai guretzat.

Ibar Ezkerra bandera izan da zuentzat. Pixka bat erreta omen zaudete horrekin, krisia etorri denean batzuek alde egin dutelako.

Ibar Ezkerrarekin eta Santurtzirekin maitasun-gorrotu harremana dut, Euskal Herriarekin bezala. Santurtzin, adibidez, herriaren izena aldatzeko oso presaka ibili ziren, bitan pentsatu gabe, abertzale izatea izenez aldatzea balitz moduan, eta Santurtzi ez da izen historiko bat. Baina gero, funtsezkoak diren gaietan, zer egiten da?



«Musikari berriak hartu genituen heinean, doinua hobetu eta freskotasuna galdu genuen». (Arg.: Ramirez).

Santurtziko portuan, adibidez, kaia geneukan, oso ederto jarrita, eta hauteskundeetan barra berdeak jartzeko bota zuten. Abertzaletasun folkloriko bat ikusten dut.

Zaramak oso bizirik sentitu izan dituzue aldi berean abangardia den rock and rolla eta sustraiak, biak aldarrikatu baitituzue, «Non dago Kamerun» kantuan sardinerekin egin duzuen bezala.

Nire haurtzaroa dena izan da

ikustea nola kentzen zituzten landak, euron lekuetan etxe erraldoiak egiteko. Ibalaldiaren himnoa izateko egin genuen kantuan ere halaxe esaten dugu: «Horma gorrien artean ja ez dago fabrika, nire haurtzaroko landetan hogeit pisuko etxeak, bingoa zabaldu duten; non eta zinea geneukan lekuan». Ez dute kantu hau hartu nahi izan, agian arrazoiz, ez dut istiluetan sartu nahi, euskarari buruz izan beharko zela uste zutelako. Baina esan nahi dudana da

utzikeria dagoela. «Etxeak?» esaten dute, «bada, lanpostuak». Eta denak isilik. Eta batzuek gainera, zera ere esaten dute: «Total, ez da gure herria!».

Zuen azken agurra Ibilaldia 95en izan da. Halako zenbatetan izan zarate?

Hiru aldiz Ibilaldian, eta Herri Urratsen, Kilometroak-en, eta halakoetan... hainbatetan.

Lagundu egin du rock and rolla onartzen horrek.

Laurogeiko hamarkadan halako mugida guztietan rock talderen bat egotea ia-ia negoziatzina bihurtu zen. Horrek rocka bertoko egiten lagundu du, zeren eta lehenago amerikarren musikatzat hartzen zen. Gogoan dut

gu hasi ginenean «Egin»-en eztabaida gogorra izan zela honetaz guztiaz. Kanpoko musika omen zen rocka. Baina musika guztiak dira kanpokoak, neurri batean edo bestean. Zera ematen du, musika batzuk zuzenean Aitorrek konposatuak direla.

Egidazu Zaramararen estiloen balantze bat hasieratik honainokoa.

Hasieran oso sinplea zen, eta nire gustukoa. Musikari berriak hartu genituen heinean, doinua hobetu eta freskotasuna galdu genuen. Azken lanean zati bat nirea da, beste zati bat jende askoren artean egina. Ezerekin geratzekotan, hasierako Zaramarekin geratzen naiz.

EDORTA JIMENEZ

«Euskal rock erradikala izeneko mugidan motibazioak ziren komunean geneuzkanak; motibazio soziala, motibazio nazionala... rockaren bitartez beste zerbait lortu nahi genuen»

Uda garaiko izotz kontuak

UKRAINIAKO izotz gaineko baleta Euskal Herrian zehar aritu da, kutxilo finen gainean bere trebezia erakutsiz. Dantza eta izotza osagai dituen koktel gozagarri honetatik edaten duenak berriro probatzen du eta, beste behin ere dastatzeko aukerarik izango ahal dugu aurrerantzean.

Kokteletan badakizue, osagaiak nola nahasten diren izaten da kontua, eta gurean, hainbatetan, izotz gehiegitxo isurtzen da nahasketetan, saporrea erabat moteldu eta ezarrirako bidea minduz. AEK eta «Euskaldunon Egunkaria»-k akordioa eta elkarlana oinarri dituen edaria prestatu nahian ari dira Eusko Jaurlaritzarekin, baina egoerak erakusten duenez, izotzetan urturik dituzte oraingoz, euskalduntze-alfabetatzeari eta euskal prentsari etorkizunerako hain beharrezkoak zaizkion zapore biziak.

AEKren kasuan, duela urtebete sinatutako hitzarmenaren ontzian isuritako osagaiak apenas antzeman dakieke usainik, kolorerik edota saporerik, pasa den larunbatean Bilbon egindako manifestazioan salatu zuten. Eusko Jaurlaritzak AEKren izaera bera auzitan jarri izanak erakusten digu Lakuatik prestatu nahi luketen koktelaren izotz-puntua zertan den. Edo mikatzukitua, bestela esanda. Nola irentsi hori, aurkako ezarririk ez bada? Euskalduntze-alfabetatzearen itolarria luzatuko duen uda sasoiari sartuko gara eta, Bilbon gogoratu zen moduan, akordioaren iturritik noiz edango zain geratzen gara guztiok.

«Euskaldunon Egunkaria»-ri dago-kionez, bere osagaietan moteldurik dagoen hitzarmenaren formula bizitu beharra azpimarratu zen Arrasaten, dirulaguntzak eta instituzioetatik da-

torren publizitatea ttantaka emateari utzi eta behar adinako kopuruan isuri eta datozen lau urteei begira «Egunkaria» egunkariagotzeko prestatu nahi den plangintzari aurre egiteko eskatuz. Ardatzotan huts egiten duen akordioari ere zaporeak ihes egiten dio.

Erronka nagusizat jo daiteke bi alorren normalizazioa, baina Eusko Jaur-

Izotzetan urturik daude oraingoz, euskalduntze eta alfabetatzeari eta euskal prentsari etorkizunerako hain beharrezkoak zaizkion zapore biziak

UEUren ikastaroak uztailearen 3tik 7ra egingo dira Baionan eta 17tik 29ra Iruñean. Ikastaro berriak ere izango da, grafologia, antropologia, sexualitatea, militarismoa, bertako ekonomia eta biolentziari buruzkoak sartu baitituzte 27 atal ezberdinetan banaturiko programan. EHUren XIV. Donostiako Udako Ikastaroak uztailearen 4tik irailaren 8ra bitartean beteko dira bestalde, 53 ikastaro eta mintegiren harian. Horieta bik euskara izango dute aztergai. (Argazkia: Joxe Lacalle).



laritzako arduradunei aurrera egiteko adorea falta zaiela azpimarratu dute, bai AEKko bai «Egunkaria»-ko ordezkariek. Karguen aldaketa etorri zenean hainbat ezaugarri goraipatu zitzaizkien kultura arduradun berriei; denbora aurrera doa hala ere, eta ez dugu konponbiderik antzematen, ezta elkarlanaren egarria asetuko lukeen edaririk ere. Salgai dituzten likoreak berriz, frogatua dago ez direla batere onak kultur-osasunerako.

EUSKAL Telebistaren seinalea hartzea oztopatzen zuen izotza urtu da azkenez Nafarroan. Gobernuak aldeko erabakia hartu du azkenez, Parlamentuak zentzu berean egindako agindua bi urtez atzeratu ondoren. Juan Cruz Alli, funtzioetan dagoen lehendakaria, eta Javier del Castillo sailburuak, CDNkoak biak, eman zuten aldeko botoa, eta beste kontseilariak (UPNkoak) abstenitu egin ziren, aurretik emandako hitza janez.

Izan ere, UPN alderdiak hauteskundeak eta gero EITBren arautzea onartuko zuela adierazi bazuen ere, ez zen alde agertu, bere konpromezuaren nondik norakoa eta aurrera begira nola joka dezakeen erakutsiz. Espero zitekeena egin du. Guztiarekin, EITBren uhinek zazpigarren herrialdea irabazi dute dagoeneko, horrelakoetan esan ohi denez, ederki asko kostata.

NEGU Gorriak taldeari sortu zenetik doinurik mingarriena entzutea egokitu zaio Donostiako Entzutegiko Lehen Sekzioaren ahotik, Enrique Rodriguez Galindo Goardia Zibileko koronelari 15 milioi pezetako indemnizazioa (600.000 libera inguru) ordaintzera behartu baitu, «Ustelkeria» abestian egiten den aipamena dela medio.

Abestian hainbat komunikabideetan agertutako informazioa jaso baino ez dutela egiten eta sententzia adierazpen askatasunaren aurkako makilazoa dela adierazi dute, artistak bere buruari autozentsura jartzea dakarrena. Adibide argiagorik...


J.J. PETRIKORENA

UZTURRE AURREAN DUDALARIK

Caro Baroja anaiak

HEMEN, gure artean, ezagunagoa bide da Julio baina azkenaldi honetan beste anaia, Pio, ari zaigu jo eta ke lanean, liburu mardulak plazaratzen, nahiz eta lehendik ere obra bat baino gehiago eskainiak dizkigun. Pio Julio baino hamalau urte gazteagoa da eta hogeitabost urte zituelarik -frankismoaren diktadura beltzena indarrean zegoenean bete beterik- Mexikora alde egin zuen hemengo giro latz bezain gonbitagarria ezin aguantatuz. Geroztik liburu ugari kaleratu ditu eta baita, idazle izateaz gainera zinegilea ere badenez gero, zenbait gidoi eta hainbat filme eta dokumentari (hauen artean ezin utzi inolaz ere aipatu gabe Julio anaiarekin batera egindako «Nafarroa-Lau urtar» pelikula hunkigarri hura).

OSO ezberdinak dira izatez Julio eta Pio, hain ezberdinak nortasunez non askotan ez duen ematen anaiak direnik ere. Azkenaurreko eguberrietako larunbat batez Berako Itzea etxean izan ginen bazkaltzen Bernardo Atxaga idazlea, Ricardo Toja pintorea eta hirurok Julio eta Pio Caro Baroja anaiak gonbidaturik. Egun guztia eman genuen bertan eta Juliori elkarrizketa luze bat egiteko aukera izan genuen. (Elkarrizketa luze hori frantseseraz argitaratu zen iaz «Autrement» aldizkariak euskaldunei buruz egin zuen ale berezi batean). Huntaz eta hartaz mintzatu ginen Juliorekin. Kexatu egin zitzaigun hemen liburuei egiten zaien kasu gutxiak eta anekdota bat kontatu zigun: berak denbora pasa pintatzen dituen koardroekin egindako erakusketa batean bi arratsaldetan denak saldu omen zituen eta diru mordo irabazi gainera; aldiz, hogeitaz urtez ikertzen eta idazten aritu ondoren eginiko liburuez ez omen da inor gogorazten eta mila aldiz diru gutxiago eskuratu omen du.



JOXEMARI ITURRALDE

EZ nuen ezagutzen lehendik Pio Caro eta oso inpresio ona egin zidan: gizon jakintsua, oso alaia eta aldi berean zuzena bezain zorrotza zela iruditu zitzaidan eta hori bai, guztiz arduratuta eta kezkatuta hemengo gauzetaz. Orduan hitz egin zigun Mexikon atera berri zuen azken liburuaz, «El Gachupín» deituriko memoria-liburuari buruz. Aste honetan bertan Pamiela argitaletxeak kaleratu du hemen liburu horren beste edizio hornituago bat izen honekin: «El Gachupín. En busca de la juventud perdida». Mexikon berak ezagutu eta bizi izandako gorabeherak dakarzkigu liburu bikain honetan. Oso gomendagarria egiten zait liburu honen irakurtzea. Beti bezala egonen da norbait, eta baita norbait baino gehiago ere, honez gero, irakurtzeko ene gomendioa alde batera utzia izango duena bazterturik, liburu gazteleraz idatzia dagoelako aitzaki sinple bezain ergela erabili ondoren. Bada harrapatuta dagoke oraingo honetan eta ez dauka inolako irtenbiderik; Pio Caro Barojaren eskutik irakurri beharko duelako orduan beste liburu paregabe hau: «Haizegua» (euskara zoragarri batean idatzia eta Pamielan kaleratua orain dela ez asko) (Liburu honek sorpresa eta tranpa tiki ugari ditu beregan gordetik eta inork ez du ezer esan: Non daude euskal kritikoak? Ba al dago Euskalerrian kritikorik? Non bizi dira eta zertara dedikatzen dira?). Hasieran esan dizuet jo eta ke ari dela lanean Pio Caro eta egia da: bere ama zena eta Pio Baroja eta Ricardo Barojaren arreba zen Carmen Barojaren poemekin osaturiko liburuaren edizioaz arduratu baita eta aste honetan, hau ere, kaleratuko da. Ez dago batere gaizki.

TXUTXU - MUTXUKA


PIER-POL BERZAITZ IKUSKIZUN BERRITZAILEA PRESTATZEN ARI DA

EUSKALTZALE eta aktore zuberotarra pastoralean oinarrituriko ikuskizun berritzailea prestatzen ari da, Pabeko euskaldunek hala eskatuta. Azaroaren 25ean estreinatuko da, bertako Zenith aretoan, eta herritarrak arituko dira taulatu gainean. Uztaro taldeko Gonzalo Etxebarria eta Thierry Hullin-ek egingo dituzte dekoratuak. Talde honek bestalde, Pastoral Mekanikoa deitu duena prestatzen dihardu, hemendik bizpahiru urtera plazaratzeko. Moduloz montatua eta modu mekaniko batez errepresentatuko dute.


NOR - NORI - NOR K

**A. AGIRREAZALDEGI**

izan zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako irabazlea, Gasteizko Armentia ikastolan jokatuko zen finalean. Aurretik ere saririk eskuratutakoa, bere maila oso agerian utzi zuen, bertsoetarako heldutasuna erakutsiz. Ekaitz Goikoetxea eta Nahikari Gabi-londo sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan. Gazteetan Jon Martinek jantzi zuen txapela. Gipuzkoarrak dira guztiak. Ikusle gutxi hurbildu zen finaleko zitara ●

**N. MOREL-BOROTRARI**

euskal opera ezaguturazi eta bultzatzeko sortu zen Sorgin Ots elkarteko lehendakariari bere ametseteko bat betetzeko ordua heldu zaio, elkarteari izena ematen dion Mokoroaren obra, inoiz taularatu gabea, estreinatzekoa. Bilbon eta Miarrizten antolatu berri duten Euskal Operaren Egunaren barne bete da xedea, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren laguntzaz. Elkartek emanaldiak eta ekimen pedagogikoak burutuko ditu aurrerantzean ●

**MIKEL ELIZAGAK**

«Apaiz gaztea» izeneko bere bigarren lana aurkeztu du, Gor disketxearen eskutik. Patziku Perurenaren «Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra» liburutik jaso ditu testu gehienak, eta honez gain, Gabriel Celayaren poema batekin eta Joseba Sarrionandiak euskaratutako Mohammed Alkali-ren beste batekin osatu ditu letrak. Hamar abesti grabatu ditu diskoan Lizarrako kantariak, hainbat musikari nafarren laguntzaz ●

TEJILAK

**HIZKUNTZ
ESKAKIZUNAK**

HERRI Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) informatu duenez, 6.903 funtzionariok hizkuntz eskakizunen bat lortu dute orain arteko probetan: 1.476k lehen eskakizuna, 2.962k bigarrena, 1.818k hirugarrena, 276k laugarrena eta 371k eskakizun teknikoa.

Gehientsuenak udal langileak dira (%47), Eusko Jaurlaritzakoak jarraian (%29), eta diputazioetakoak (%24). Egindako aurrikuspenaren arabera, Euskal Autonomia Elkarteko funtzionarioen heren batek, 7.321ek hain zuzen ere, lortu beharko du berea, %16ak Araban, %26ak Bizkaian eta %50ak Gipuzkoan.

Azken azterketetara aurkeztu diren %60ak gainditu du mailaren bat (gehientsuenek bigarrena, 323k, eta 33k besterik ez laugarrena), horietatik erdiek lehen aldiz.

Datorren hilabetean amaituko da euskalduntze planaren lehen fasea, eta oraindik erabaki gabe dago nola garatuko den.

**CD-ROMA ETA
EUSKARA**

EUSKARA eta teknologia berriak eskutik datoz kaleratzen ari diren hainbat CD-ROMetan. Elhuyar elkarteak «Ezagutu Gipuzkoa» izeneko aurkeztu du, eta aurrerantzean, beste sei herrialdeei buruzkoak eta Atlas Elektronikoko Mundiala burutu nahi ditu.

Aurten Bai Fundazioak eta Adorez taldeak «Europa Hiztegia» plazaratu dute, eta Eskoriatzako Irakasle Eskolak «Euskara, gure hizkuntza», guztiak soporteko informatiko berean eginak.

Anton Mendizabal eskultorearekin solastatu gara bere obraz

Estela eta argizaiioletatik pilotalekuen espazioetara

O iartzungo Udaletxeko arkupetan pilotan eskuz jokatzeko topatu dugu. Izerdiak lehortu eta Tolarte etxean hitz egin dugu Anton Mendizabalekin Lasarte-Oriako kultur etxean erakutsi berri dituen eskultura lanak eta oraintxe burutzen ari den pilotalekuei buruzko serieko lanen artean. Ondoan daude hainbat sariketatan entregatzeko egin dituen garaikurra dotoreak, tartean ARGIA Sarietarako egindakoa.

Artisau edo eskultore bezala ikusten duzu zure burua?

Oso zaila da muga jartzea. Artisau bezala hasi nintzen, tallista ofizioa nuen: kutzak,

argizaiolak... Gero hura desarroilatzen hasi eta eskultura munduan sartzen zara.



«Herriak prestakuntza behar du kultura eta estetika ulertzeko». (Argazkia: Alberto Elozegi).

Baina eskultura horiek edo maketa horiek errepikatze-rakoan berriz ere artisautza mundura itzultzen zara. Momentu honetan eskultura gehiago egiten dut.


Gustuko eskultoreak zein dituzu?

Ez dut inoren eragin zehatza, askori zor diot zerbait. Euskal eskolaz hitz egitea gehiegizkoa gerta daitekeen arren, eskultura hizkuntza badago gure herrian: Oteiza, Txillida, Basterretxea, Mendiburu, Ibarrola, Anda, Ugarte... Horiek pixkanaka hizkuntza bat gauzatu dute. Nik hizkuntza hori neurri batean asumitu dut. Hurrengo pausoa eman nahi nuke: nire estilo propioa sortzea, hori da zaila. Orduan esan nezake artista bat naizela, bitartean ikasle bat besterik ez naiz izango.

Azken seriean, pilotalekuen espazioarena, ez dut Oteizaren estetika jarraitu, baina bai bere planteamenduak. Aurreko serie batean Txillidaren miresle naizela suma zitekeen edo Ugarterena, Basterretxea, Ibarrolarena...

Filosofiak zer eragin du zure lanean?

«Nere herriari zerbait ematea baldin badaukat eskulturaren bitartez, benetan sentitzen dudana zerbait izan behar du, nahiz eta modaz kanpo egon».
(A.: Alberto Eloseggi).



Filosofia eta Letrak ikasi nituen... Pedagogia, ez Filosofia. 25 urte bota ditut ikastolan, hasierako garai zail haietan gorputz eta arima han entregatuta ibili nintzen, gero pixkanaka tailagintzan aurrera segitzen nuen neurrian ikastola pixka bat uzten joan nintzen eta azken hiru urte hauetan utzi egin dut. Pedagogia ekintza horri zeozer zor diot. Nire obrak ulerkorrak egiten saiatzea adibidez, jendeari obraren ingurumaria aztertzen laguntzen saiatzen naiz, begiak eta sentsibilitatea irekitzen. Ez obra bera biguintzen. Hor arrisku izugarria dago. Obra didaktikoa egin daiteke, baina nik

ez dut hori ikusten, oso sinplea litzateke. Kontzeptu sakonagoak nahi ditut, baina laguntza emanez ulertzeko. Herriak prestakuntza behar du kultura eta estetika ulertzeko. Nire erakusketetan ia beti bisita gidatua egiten dut erraztasunak ematearren.

Zein dira erabiltzen dituzun gaiak?

Nire herriari zerbait ematea baldin badaukat eskultura-

ren bitartez, benetan sentitzen dudana zerbait izan behar du, nahiz eta modaz kanpo egon (kromletxak, intxixuak, pilotalekuak). Iritsiko da momentu bat beste gai batzuk ere landuko ditudanak. Oso erraza da modan dagoena egitea: neominimal, neo-kontzeptualismo, neo-bangoardia... Tentazioa da momentu batzuetan, baina behar hori sentitzen dudanean egingo

« Euskal Herriko hainbat eskultorek sortu duten hizkuntza asumitu dut. Hurrengo pausoa eman nahi nuke: nire estilo propioa sortzea, hori da zaila; orduan esan nezake artista bat naizela »

dut hori. Oraingoz behintzat, nire herriko gaiak sentitzen ditut.

Eskultore gutxi izango dira pilotan eskuz jolasten dutenak.

Niretzat pilota jokoa funtsezkoa da nire obran. Azken hiru urte hauetan gai horrekin ari naiz, pilotalekuaren espazioa aztertzen eta. Horretarako pilota sentitu beharra dago, baina kantxaren barrutik; arkupe bat ikusle bezala edo barruan egonda ikustea oso desberdina da.

Material aldetik gehienbat egurra erabiltzen duzu.

Harria ere erabiltzen dut gauza batzuetarako, batez ere harriaren hoztasuna behar dudalako frontoiarena adierazteko. Frontisa hotz-hotza dago, etsai da batzuetan eta arbel beltza erabiltzen dut orduan. Egurra erabiltzen dudanean gehienbat haritza erabiltzen dut, baina intxaurra, gerezia, lizarra eta hemengo beste egurrak ere bai.

Guggenheimen inguruan sortu zen Kultur Kezka borretan partaide izan zinen.

Proiektu hori kultura herrikoiaentzat oztopoa baldin bada, eta hala izango dela dirudi, kaltegarria iruditzen zait. Ikusi behar da zer izango den hori, baina horrek esanahi du besteontzat gutxiago izango dela. Bestalde yankee-en kultur kolonizazioak ere kezkatzen nau.

Kultur Kezka segituan desagertu zen zoritxarrez. Alor askotako jendea bildu ginen, baina ez dugu horrelako gauza interesgarriak aurrera ateratzeko adorerik erakusten. Lehenengo prentsaurrekoaren bila goazela dirudi.

Donostiako Kursaalaren proiektua geiago gus-tatzen al zaizu?

Ni oso arkitekturazalea naiz eta proiektua gustatzen zait. Elementu berrizaleak ditu, nahiz eta hiri erromantikoa izan. Uste dut kontraste gisa biak irabazten ateratzen direla. Kursaal zaharra ez zen bota behar, baina behin bota-zer gero Moneoren aukera interesgarria iruditzen zait. Hori egiteko Donostiak eta Gipuzkoak zenbat sufritu-ko du? Ez luke sufritu behar, beste bide bat izan behar lukete proiektu herrikoiek. Proiektu handiak onak dira eta beharrezkoak, baina ez daitezela egin proiektu txiki-ekin bizkar. Guggenheimen kasuan garbi ikusi da gutxitu egin direla herri kulturarentzako aurrekontuak.

Kutxarekin zer barre-man duzu?

«Pilota jokoa funtsezkoa da nire obran. Horretarako pilota sentitu beharra dago, baina kantxaren barrutik, arkupe bat ikusle bezala edo barruan egonda ikustea oso ezberdina baita»

Pilotalekuaren espazio horietan-Kutxarekin tratua egin nuen: berak hartzen dizkit eskultura guztiak egin ahala, ikerketa lan bat bezala. Prezio finkoa jarrita daukagu. Esperientzia zoragarria da. Sozialismo utopikoarekin ametsa egiten genuenean horrelako zerbait nahi genuen, estatuak edo erakundeek artista babestea. Lasaiago egin dut lan, oso libre, inongo baldintzarik ez dagoelako eta pentsatuz egiten dudanagatik epaituko nautela etorkizunean. Nonbait ezin badut huts egin, lan honetan da.

Nire lan hori hor ikusgai egongo da. Bat falta zait hamarreko seriea bukatzeko. Azpeitiko Antxieta jauregian ari dira pilotari buruzko gauza hauek guztiak biltzen. Noizbait agian zerbait egingo da.

Hemendik aurrerako proiektuak?

Abuztuan Maulen erakusketa egingo dut... Hor esperimentzia bat burutu nahi dugu. Arriben erakusketa zabaldu genuenean plaza zahar-ean pilota partidua bertsoekin tartekatuz antolatu genuen, gauza batzuk berreskuratzeagatik. Gonbi-

datutako jendea gero erakusketara joan eta beste era batera ikusi zuen. Arte plastikoak beste arte batzuekin elkartzeko sistema bat da. Orain Maulen hori bera geiago desarroilatu behar dugu.

Gipuzkoa eta Zuberoa arteko desafia egingo dugu. Bina pilotari eta bertsolari bana. Eta frontoi ondoko gela batean pilotari buruzko nire lanak egongo dira erakusgai eta beste batean bestelako lanak eta artisautza lanak ere bai. Gero kantaldia ere izango da hango eta hemengo kantariekin. Jendearengan erakarpena izan nahi dugu. Hemendik bi urtera erakusketa egingo dut San Telmon. Hor beste elementu bat sar daiteke, antzerkia adibidez.

JOXEMI SAIZAR

aizu!ren harpidedun izan nahi dut!

Izen abizenak.....

 Helbidea.....
 Tnoa..... P.K.....
 Herria.....
 Herrialdea.....
 Bankua.....

 Sukurtsal zk.....
 Kontu zk.....

Urte osorako harpidetza:
 Hego Euskal Herria: 6.300 pta.
 Ipar Euskal Herria: 11.300 pta.
 Atzerria: 11.3000 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1. goa
 40009 Bilbo - Tel. (94) 423 15 52



Euskal Herriko Haurren Kantu Txapelketaren finala Basaurin jokatu da ekainaren 17an

Kantuz kantu noa ikasten...

Bakarka, binaka, taldeka, instrumentuen laguntzaz, «a capella», kantu zaharrak edo berriak abestuz, denetarik entzun ahal izango da Basaurin. Haur eta gaztetxoak protagonista, eta euskarazko musika sustatzea helburu duen txapelketa.



Euskal Herriko 28 ordezkari bilduko dira finaleko saioan kantatzera.

ZAZPI herrialdeetan kanporaketak egin ondoren, Basauriko Social antzokian jokatu da bi urtean behin antolatzen den Haurren Kantu Txapelketaren finala, ekainaren 17an. Guztira 28 partaide izango dira bertan (herrialde bakoitzetik lau), bakarka, binaka eta taldeka, bi mailatan banaturik: sei urtetik bederatzira eta hamar-hamalau urtera bitartekoak. Euskarazko kantagintzarekiko zaletasuna

goratzea helburu harturik, 2.400 haur eta gaztetxo ingururen partehartzea ezagutu du edizio honek, eta hori du noski, markarik aipagarriena.

«Erreferentzia bihurtu da»

HIRUGARRENEZ antolatu du txapelketa Euskal Herria osoan adarrak zabaldu dituen Kantuzaleen Elkarteak. Iparraldean eta Nafarroan egin zituzten aurreko bi fi-

nalak, eta Bizkaiari pasatu diote lekukoa aurrean. «*Due-la sei urte Iparraldean erroturik zegoen txapelketaren xedea Hegoaldera ekarri dugu eta indarra hartzen ari da. Gero eta kantari gehiagok parte hartzen du, eta Bittor Aiape askotxo sor daitetze bidean*», Jose Luis Olaziregi Gipuzkoako koordinazioa daraman Ugaldetxo taldeko partaideak dienez.

Zentzu berean mintzatzen da Andoni Sagastibeltza, Na-

farroaz arduratzen den irakasle taldeko kidea: «*Erreferentzia bihurtu da, jendea galdezka aritzen da. Mailaz gora doa gainera*». Zinta bat kaleratu berri dute, herrialdeko bi kanporaketetan eta Gaiarreko finalean jasotako doinuak zabaltzeko. Iparraldean ere, ikusi direnak ikusita, hauspoa berotuta aritu zaigu Eñaut Larralde, Kantuzaleen Elkartearen lehendakaria: «*Lapurdin ia herri guztietatik etorri dira kan-*

■ **2.400 haur eta gaztetxo ingururen partehartzea ezagutu du aurtengo edizioak, eta hori du noski, markarik aipagarriena**

tariak, barnetik eta kostaldetik, hori lehendabizikoz ezagutu da. Gebienak taldeak izan dira Lapurdin, Nafarroa Beherean antzera batzuek eta besteak, eta al-diz, Zuberoan bakarlari gehiago.

Taldeka abestea nahiago

EUSKAL Herriko balantzak ordea, taldeen aldera egin du nabarmen. Tarte handia dago bikote eta bakarlariekiko. Gipuzkoan adibidez, bakarlari eta bikote bana aurkeztu dira soilik. Aurre-rapauso nabarmenik ezagutu da herrialde honetan ere, duela bi urte ez zen kanporaketarik egin, eta taldea berriro ondoren, kantu-makina martxan jartzea lortu dute. Arrakastatsuen ordea, Bizkaia aritu dela adierazi digute, lau kanporaketa eta 600 haur inguru bildu baitituzte: *«jende berria dator,*

eta oraindik txapelketa zabaltzeko lan handia dagoen arren, oso pozik gaude, Sustraiak antolatzaile taldeko Juanjo Zelaiak aipatu digunaren arabera.

Maite Idirin, epaimahaikide eta antolatzailea:

«Afera da haurrek hartzen dutela konpetizio gisa»

Zer nolako maila antzeman duzu orain artekoak ikusita?

Bistan da, hautatzen ditugunek maila polita erakusten dute. Denetarik dago bestalde, batzuk ongi prestaturik, beste batzuk gutxiago.

Azpiraratzekoa da laguntza musikalak ere gero eta hobeagoak direla.

Afera da haurrek hartzen dutela konpetizio bezala, eta hori ez dugu nahi, baizik eta kantuaren maitatzea eta euskararen praktikatzea kantuan. Zerbait egin behar dugu alde honetatik.

Azpiraratzekoa da ere Iparraldean ikastolak ez dutela parte hartzen, beste eskolak ari dira. Eskoletan hemen gero eta gehiago musika irakaslea dago. Ikastoletan ez dago, eta hor deskuidatzen dira.



Herrialde batetik bestera asko aldatzen al da maila?

Egia da Iparraldea aspaldi honetan beti izan dela hobe, baina Bizkaian eta Iruñean ikusi ditudan gauzak politak dira. Txikiengan 'lehia' gogorra ikusiko dugu finalean.

Aurreko edizioetan ere aritu izan zara. Alderik ikusten al da?

Batez ere Iparraldean kantu berrietan. Lapurdin hamar kantu berri izan di-

ra, eta hor ikusten da gurasoak eta irakasleak arduratzen direla lan bat egiteaz, eta hori azpiraratzekoa da.

Taldeak asko dira beti, eta bakarka edo binaka aurkezten direnean gehiago da etxeko lana, hori nabaritzen da.

Laguntza musikalak gora egin duela esan didazu.

Bizkaiko kanporaketetan instrumentu aldetik gauza oso onak entzun ditut. Bistan dena, beti helduek laguntzen diete.

Aurrera atera daitekeen fenomenorik ezagutu al duzu txapelketan zehar?

Bai. Lehiaketa zentzu honetan positiboa da, bokazio batzuk sortzen dira. Txapelketarik gabe haur eta gazte horiek ez lirateke interesatuko.

Hamar milioi pezetako (400.000 libera inguru) aurrekontua dute, Euskadi-Akitaniako laguntzekin osatuko beharrekoa. Eta ekainaren 17a begi aurrean.

Sailez-sail banatuko diren sariez gain, haur eta gazte-txoengan kantua sustatzea izango dute sari nagusia.

J.J. PETRIKORENA

JUAN LUIS ZABALAREN ipuin liburua, SUSA argitaletxeak plazaratu berria

SAKONETA

11 ipuineko bilduma, 176 orrialde; liburudendetan salgai: 1.300 pezeta

Euskal Musika zikloa burutu berri da Parisen

Musikaren promozioa eta promozioaren musika

Oskorri, Erramun Martikorena, Lin Ton Taun eta Su Ta Gar Parisen izan dira, Euskal Etxeak antolaturiko Euskal Musika zikloan barne Euskal Herriko doinuak ezagutarazi eta promozionatzeko. Parisen jaso duten erantzunaz aritu gara, eta lortutako emaitzez. Honekin batera, eta ekitaldi honen doinuei jarraiki, kultura atzerrian zabaltzeko politikari antzematen zaizkion hutsuneak ere solasgai izan ditugu.

«PARISTIK datorren artista bat naiz ni...» dioen leloa altutik kantatzeko aukera

izan dute, maiatzaren 17, 18 eta 19an Frantziako hiriburuan Euskal Musika zi-

kloan parte hartu eta ahoa bete ezti Euskal Herrira itzuli diren Oskorri, Lin

Ton Taun, Su Ta Gar, Txakun eta Erramun Martikorenak.

Euskal Etxeak Frantziako euskal musika ezagutarazteko antolatu dituen bi kontzertuetan jo dute aipaturiko taldeek eta kantariak. Ezagutarazteko diogu, Marie Agnes Estenou arduradunak adierazitakoaren arabera, gure doinuak ez baitira batere ezagunak hain hurbilekoa iruditzen zaigun Parisen: «Hainbatek rock musikaririk egiten denik ez zekien, berrigarria egiten zen beaurya euskaraz entzutea...».

Entzule berriak erakartzea helburu

HORIXE zuten, hain zuzen ere, lehen helburua: entzule berri hori erakartzea, eta bertako komunikabideak eta nazioartekoak sensibilizatzea. Bietan asmatu dutela aitatu digu: «Mila lagun inguru hurbildu dira, eta euskal musika bere estilo guztietan existitzen dela obartaraztea lortu dugu; bonekin batera, Euskal Etxea ere promozionatzeko balia-

Promozioa ez daiteke txeke bidez egin

EUSKAL Musika oso esperientzia ona izan da, beharrezkoak dira antzeko egitasmoak gure musika atzerrian promozionatzeko, eta Parisek helduleku polita eskaintzen du. Iniziatiba honek bi gauza erakutsi ditu: gure musika kasik erabat ezezaguna dela Frantziako, eta era berean, badagoela entzulego bat dastatzeko prest.

Hala ere ulertzen dut kultur munduan herrenka eta laguntza faltan dabiren hainbatek eskuak burura eramatea, Eusko Jaurlari-

tzak zazpi milioi terdi pezetekin ez du ezertarako balioko Eusko Jaurlaritzaren orain arteko politika, edo politika falta, aldatzen ez bada.

Ikusteko gaude beraz, Mari Karmen Garmendiak egin dezakeena. Oraingoz behintzat, gauza handirik ez, eta aurrera begirakoak ez dauka oso itxura onik, ez atzerrian ari direnentzat, ez Ebro eta Adurretik kanpora beren lana erakutsi nahi dutenentzat.

Bitarteko ekonomikoak behar dira eta azpiegitura sendoa. Eta Euskal Musi-

tzak zazpi milioi terdi pezetekin ez du ezertarako balioko Eusko Jaurlaritzaren orain arteko politika, edo politika falta, aldatzen ez bada.

Ikusteko gaude beraz, Mari Karmen Garmendiak egin dezakeena. Oraingoz behintzat, gauza handirik ez, eta aurrera begirakoak ez dauka oso itxura onik, ez atzerrian ari direnentzat, ez Ebro eta Adurretik kanpora beren lana erakutsi nahi dutenentzat.

Julen Arriola

Kazetaria



Euskal Herriko musikari buruz ikuspegi oso murrizta dagoela antzeman dute Parisen, ez dela ezagutzen, eta lan handia egin behar dela zabaltzeko. (A: Julen Arriola).

garria gertatu da, komunikabideek gure berririk ez baitzuten».

Egitasmoak jarraipena behar duela aldarrikatzen du Agnes Estenouk, aurten irekitako atearik alde zabal daitezela: «Bide honetan jarraitzea espero dugu, baina laguntzak behar ditugu, Euskal Etxeak ezin baitu bere bizkar hartu ekitaldion kostua». Eusko Jaurlaritzak zazpi milioi pezeta t'erdia (300.000 libera inguru) jarri

ditu Euskal Musikaren lehen edizio honetarako.

Dirulaguntzen etorkizuna

EUSKO Jaurlaritzak hainbat kultur ekitaldi sustatu ditu, aurretik ere, Parisen. «Alakiketan» obra taularatzeko adibidez, bost milioi pezeta xahutu zituen iaz. Baina, txanponaren beste aldeari erreparatu gero, Kultur Bidean egitasmoa laguntzarik gabe utzi, eta ondorioz, urrian atearik itxi

beharrean izan zen. Eta ondoren, urtea bukatu aurretik, zazpi milioi pezeta t'erdia eskaini zizkion Euskal Musikari.

Honen guztiaren atzean, euskal kultura nazioartean hedatzeko politika zehaztu beharra ikusten da kultura munduan, zera, aurtengo Euskal Musikak izango al du jarraipenik? Eta jarraitzekotan nola, hots, kontzertuak produzituz edo taldeak Europako sareetan sartuz?

Aurten xahutu diren diruok bestalde, kultura promozionatzeko bulego bat ere ireki zitekeen Parisen. Helduko al zaio hain beharrezkoa den egitasmo bati? Galdera askotxo dauka beraz, erantzunik gabe. Inaki Agirre, Euskal Etxeetako koordinatzaileak esan digunez, «orain arte bezala proiektuak abal diren neurrian laguntzen jarraituko dugu».

J.J. PETRIKORENA

ARGITALPEN BERRIAK

"TXEPETX" BILDUMA

- TXEPETX 5 PROZEDURA KOADERNOA I
- TXEPETX 5 PROZEDURA KOADERNOA II



AUKERA ZABALA!!

Pasiotarrak - 48290 ● EUBA ☎ 6308036 FAX: 6308028



ATLANTIDA: EGIA ALA MITOA?

(KATAKLISMO GEOLOGIKO BATEN HISTORIA)

I. Rézanov / D. Vitalino



ARTZAIN-KOMUNITATE EUSKALDUNA (II)

(BORTUKO INGURUA)

Sandra Ott

- Platonen kondairatik plaken tektonikara misterio ikaragarri hau ulertu nahian.
- Kontinente galduaren desagertzearen kausa fisikoak.
- Minostar zibilizazio itsastarraren aurkikuntza Arthur Evans-en eskutik.
- Gertatutako kataklismoaz gaurko zientziak baieztatzerik duena.
- Atlantidari buruz Tira uhartean aurkitutako irudi ernagarriak.

PUNTAKO JAKINTZA, EUSKARAZ, ZURE ESKU


- Olha delako artzain-erakundearen antolaketa demokratikoa.
- Mendiko gazta eta etxeko gaztaren arteko desberdintasunak. Mendiko gaztangintzaren inguruko erritoak.
- Umeen eta gazten 'kontzepzioaren' arteko lotura hizkuntzan, gizarte-mailan eta maila sinbolikoan.
- Zuberoako basoa eta gizartea XIX. eta XX. mendeetan.

EUSKAL HERRIKO BIZITZA PRIBATUA GURE HIZKUNTZAZ



GAIK ARGITALDARIA

L I B U R U A K



«LANIK GABE EZIN BIZI»
BIZENTE BARANDIARAN

SENDOA, AUSPOA, 185or. Itsasondoko Urkia mendibailaran jaioa, Bizente Barandiaran lanik gabe ernegatzen den horietarikoa dugu, hitzaurrean dioen bezala: «Goizean, etxetik irten ordurako, ikusten det alde guzietan lana. Ezin utzi asi gabe. Ekiten diot gutxi egiteko idean, baiñan beti berdin gertatzen zait: asitako lana bukatu egin nai, eta lengo sasoiak pikutara joana». Idazteko sasoiak behintzat ez du inondik ere galdu, eta denbora pasatzeko langintza paregabea delakoan, gaztetako kontuak goldatu ditu liburu honetan. ♪●



«BENSUF,
ERLOJUGILEA»
PABLO ZAPATA LERGA
ITZULPENA: KARLOS
SANTISTEBAN

EDEBE, GILTZA, 53 or. Duela urte asko gizon eta emakumeak oilarren kuku-rukuarekin jaikitzen ziren garaikoa dugu Bensuf, Eki-alde urruneko erlojugile berezia, errege-erreginek eta enperadoreek mirestua. Haren aparatuak ezagutzen ziren onenak ziren, eta urrutiko herrietatik etortzen ziren erostera. Behin amets bat izan eta egia bihurtzea erabaki zuen. Amets horixe da 6 urtetik aurrerako gattetxeoi tik-tak batean kontatzen zaiena, Montse Ginema marrazkilariak koloretan egindako ilustrazio ugariengatik. ♪●

MIKEL ELORZAREN BEGIETAN

Literatur interruptusa

«Ia ipuin denak larrujotze moeta ezberdinei buruzkoak izanik, irakurlea txoras-txora eginda zein nazka-nazka eginda gera liteke hainbeste sartu-aterarekin». Arrazoi hori medio idazleak liburua nola irakurri behar den aholkatzeak -ene iritziz soberan dagoen sarrera batean- ez zidan liburuari ekiteko atarikorik ederrena eskaini. Aitzakiatik hurbil dagoen azalpenak ez dit kilika egiten..

Euskal literaturan eremu neskutsa gustatu eta aldera ekartzera jo du Aranak. Estreinako formalismoen ondoren -mamiarik gabeko 'hurbiltze-solasa' litzateke sarrera-, haragikerietara jo du egileak. Saio bako-riren hamabost lotu ahal izateak badiu meriturik -denak euskaraz-, baina ariketa ez da urrezko hitzez egunkari ezkutuan gordetzeko gertatu. Or-

gasmorik gabea, txepela.

Ipuinak sinpleak dira, korapilo dramatiko gutxienez gabeak. Bat, bi edo hiru pertsonaia, dena delako egoera eta motzean -ez gordinean- sexu-festa. Tapa aldatuta alokatzen diren filme 'bakarzaileen' tankerakoak.

Hizkuntzaren aldetik saioa aipatzekoa da, baina ez du estilo aldetik ariketa berezirik egin. Eta ez zion kontatu beharrekoak aukera handia ematen. Zeren eta irudimena sexu alorrean fabulatze alorrean baino joriagoa izanagatik ere, ez da Peruko urrea. Ipuinetan ariketa mota gehienak azaltzen dira -heterosexuala, homosexuala, zoofilia, pederastia...- baina oso modu soil eta topikoetan azalduta. Katalogo modua egin nahita suma litekeen bilduma -odol eta mi-



IPUIN LIZUNAK
AITOR ARANA
R & B KRISLU. 155 or.

nik, oi Ama Euskal Herria!, ez da ageri-, interruptusa suertatu zait. Saiatuagatik, plazerrik gabea.



«HIK HASI»


COORDINATZAILEA:
JOXE MARI AUZMENDI
ALDIZKARIA, 0 ALEA,
52 or.

Editorialean aipatzen dute-
nez, euskal heziketarako al-
dizkaria da honakoa, eta
euskal irakaskuntzaren par-
taide diren guztientzat infor-
mazio, eztabaida eta elkar-
gunerako bitarteko gisa ka-
leratu dute. Euskalduna,
nazionala, irakasleena, ba-
terakoia, irekia, plurala eta
independentzetzat jotzen du
bere burua «Hik hasi-k», eta
zero alearen ondotik, irai-
lean emango zaio jarraipe-
na, hilabetekari gisa. Super
Bati buruz hausnarketak, Li-
zarrako ikastolaz errepor-
taia, Felix Basurkorekin el-
karrizketa, eta hainbat gai-
ren inguruan mintzo da ●

«CARTAS A JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN» (SEGUNDA ETAPA, 1952-1991)

LUIS DE BARANDIARAN
IRIZAR
KUTXA FUNDAZIOA,
359 or.

On Joxemielen iloba eta aldi
berean biografoa dugu Luis
de Barandiaran, eta liburu
honetan euskal kulturaren
patriarka handiari inguruko
eta atzerriko pertsona os-
petsu eta ezagunek idatzi-
tako 281 gutun jaso ditu. Sar-
reren dioenez: «Gutun
hauen bidez, hainbat berri
kultural eta zientifikoz gain,
eta bertako datu sozial eta
gizatiar ugariak ahaztu gabe,
ongi baino hobeto ikus dai-
teke On Joxemielek bere
inguruan lortu zituen mai-
sutza eta errespetua» ●



«FUTBOL ENTRENATZAILEA»

CHRISTIAN BOURREL eta
MAURIZIO SENO
ITZULTZAILEAK: IÑAKI
FRIERA ETA IÑAKI
AZKUNE
DEBA BAILARAKO
EUSKARA ETA KIROL
ZERBITZUAK, 226 or.

Urteotan hainbat ahalegin
egin dira Deba Garaian aha-
lik eta esparru gehienetan
euskararen normalizazioa
lortzeko, eta esparru horie-
tan lehentasunekat hartu
dute gazte jendearen den-
bora libre, eta honen baitan
kirola. Kiroletan euskarak
bizi duen egoera aztertu on-
doren, bi ondorio atera di-
tuzte: entrenatzaile euskal-
dunak eta euskarazko ma-
terialak behar direla. Beka
bat sortu eta lehen emaitza
dugu eskuartekoa ●

«REGRESAR A SARA»
ALFONSO ETXEGARAI
TXALAPARTA, 200 or.
Alfonso Etxegarai plentzia-
rrak hamar urte egin ditu
han-hemen deportaturik
eta egun Afrikako Sao To-
men konfinaturik bizi da.
Handik idatzi du liburua,
XVIII. mendean zigor politi-
ko gisa Frantziak deportatu
zituen saratarren ondoren-
goen egoera lazgarriaren
berri emanez, bere bizitza-
ren testigantza bitartez.
«Euskal herritarrentzat
hausnarketarako materiala
izan dadin» kaleratu du lana,
«eta noizbait historia idatzi-
ko dutenentzat baliagarria
izango delakoan». Guztiare-
kin, Espainia eta Frantziako
gubernuen jokabidea sala-
tzera datoz lerrook ●




**9.800
PEZETAN**

Argi ikusten ez baduzu, zatoz MULTIOPTICASera. Zure eguzkitako betaurrekoak preziorik distiratsuenean graduatuko dizkizugu. Montura eta graduaturiko kristalak **9.800 pezetan**. Argi ikus dezazun. Eta beti MULTIOPTICASen garantiarekin, zure zerbitzura 450 baino optika gehiago dituen 1. mailako Zerbitzu Optikoa.

ZINKUNEGI
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Hernani, 4 - DONOSTI


TENE LEHIAKETA 1995



«TENE LEHIAKETA 1995»

ELKAR-DEBAKO UDALA,
84 or.

Aurtengo Tene Lehiaketak sei idazleren ipuinak saritu eta argitaratu ditu: Jesus Maria Olaizola «Txiliku», Antton Luku, Galder Guanaga Garai, Aitor Zuberogoitia, Maialen Zubeldia eta Eneko Aranburu ●



«LAU BEHI» LAU BEHI IZ DISKETXEA

1994ko maiatzean sortu zen Lau Behi, eta aurretik Blues Stop eta Parafunk taldeetan elkarrekin jotzen aritutako lau kidek osatzen dute: Alberto Bosch (ahotsa, ba-

XABI NABARRO BELARRIZ

Aise entzuteko diskoa, pretentsiorik gabekoa

Bertsoak, musika eskukada bat eta, ale hop! hemen duzue Gor disketxeak argitaratutako Zazpi Eskaleren keinua. Basauriko Trintxera kultur elkarteak pasa den urtean antolatutako pobrezia buruzko jardunaldietan jaio zen ideia, eta horren jarraipena dugu Josu Zabala, Hertzainak taldeko kide ohiaren zigilua antzematzen zaion disko hau. Hain zuzen ere, kantu gehienek dute Hertzainak talde zaharren zapora hori (besteak beste, «Kartoipeko ametsak» eta «Kaixo amaxo» abestiek).

Ohiko bertsolaritzarentzako aide berriak, punta

puntako gazteen eskutik datoz. Bertso munduan ere aurrera egin behar da eta, Andoni Egañak «Tximeletak sabelean» diskoarekin egin bezala, orain Unai Iturriagak eta Igor Elortzak bertsoak musikatzearen aldeko apostua egin dute. Oriji-naltasuna behintzat ezin zaio ukatu proiektu honi.

Bertsoak berezkoa du xarma, eta ez du konplikazio musikal handiegirik behar, «Kale kantoian» edo Pello Mari Otaño bertsolari handiaren hitzak jasotzen dituen «Mutil koskor bat» kantuetan ondo askotxo ikusten den bezala.



ZAZPI ESKALE. GOR, 1995

Aise entzuteko diskoa da honakoa, pretentsiorik gabekoa, musika eta bertso mundua elkarrekin nahastuz gauza polita eta proiektu interesgarria gauzatu dituen. Zazpi Eskale hauek kale kantoietan ikusten badituzue, gelditu eta entzun. Limosnatxo bat eta, ... txalo bero bat, faborez.

xua), Juanra Etxaburu (bateria), Txenan Calvo (gitarra) eta Mikel Azpiroz (ahotsa, gitarra, pianoa eta Hammond organoa).

Aurreko uztailan maketa bat grabatu ondoren, IZrekin kaleratu dute beren lehen iraupen luzekoa, blues,

rock and roll eta funky-aren haritik eta joera berriak tar-tekatuz. Hamar abesti osatu dituzte, horietarik bi instrumentalak, eta guztiak soinu naturalak bakarrik erabiliz grabatu dira. Diskoa bolumen altuan entzutea gomendatzen dute ●


Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
20 004 DONOSTIA



Sinatu berri du Nafarroako Gobernuak ETB seinale hartzea arautu duen ituna.

EITBren seinalea Nafarroara heltzen da

Aurreko astean Nafarroako Gobernuak EITBren seinale hartzea arautuko duen ituna sinatu zuen. Alik eta Del Castillo sailburuek soilik honen alde bozkatu bazuten ere, Nafarroako zenbait ikastola, udal, euskal elkarte eta herritarren helburua lortu da halako batean.

ORAIN dela zortzi urte hasitako borroka bada ere, 1993-an erabaki zuen Nafarroako Parlamentuak EITBren seinale-hartzea arautzea. Azken bi urteotan hartu beharreko akordioek hainbat atzerapen jasan badute ere, aurreko ekainaren 5ean, Alli lehendakariak proposatuta eta honen eta Del Castilloren aldeko botoarekin eta UP-Nko kontseilarien abstentzioaren ondorioz, sinatu

zen akordio hauek lortzeko beharrezko den protokoloa. EITBko zuzendaritzak «oso gustora hartu» du berri hau eta zuzendaria den Iñaki Zarragoak argitu dugunez «oso berri pozgarria dugu hau, ez bakarrik nafar guztiak ETB ikusteko aukera izango dutelako baizik eta enpresa bezala guretzat esparru berri bat zabaltzea suposatzen duelako».

Eta hala da, ETBk dituen

datuen arabera, egun zenbait ikastola, udal eta euskal elkarte desberdinen laguntza eta lanari esker, egunero ETB ikusten duten ikusentzuleen % 16 nafarra da, «akordio honi esker ikusentzulego nafarra % 20ra igo daiteke». Gogora ekarri behar dugu euskaltzale talde batzuei esker Nafarroa osoan eratutako errepetidore piraten sarea. Legez kanpokoa izan arren, per-

tsona hauek sare hau osatzeko ekimena hartu zuten eta hau dela eta egun Nafarroa osoan ikusten da ETB. «Eskertzekoa da pertsona hauek egin duten abalegina baina onartu beharra dago errepetidore baten baldintzak ez direla behar beste-koak. Hala ere, akordio honi esker pertsona hauek bere gain hartu duten karga ekonomikoa arinduko da bemen-dik aurrera».

Sinatu berri den protokoloa ez bada guztiz argitaratu, bertan agertzen diren baldintzen artean Nafarroako Komuni-

tateko ikurrak errespetatu beharreko baldintza dugu, bere garaian Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakiaren ondorioz. Honi buruz galdetu diogu Iñaki Zarragoairi eta zera esan digu: «Teknikoki eguraldiaren mapa da Euskal Herria bere osotasunean hartzen duen bakarra. ETBk beti errespetatu izan du Euskadi kulturalaren banaketa politikoa. Ezin dugu ukatu gure errealitate politikoa hirutan banatuta dagoela».

Hurrengo urratsa, beraz, Iparraldea dugu. Bertan ere errepetidore sarea antolatu baita hainbat euskaltzaleen laguntza eta diruari esker. «Gure itxaropena da Europa zabaltzen den heinean, mugak hausten diren heinean, Iparraldeko instituzioekin antzeko akordioetara heltzea. Hala ere, epe ertainera luza daitekeen helburua dugu hau».

NEREA ETXANIZ

Jesus Tormes: «Zarauztarrak telebistaren erabilpenaz ohartarazi nahi ditugu»

Azken ekainaren 8an Zarautz Telebistak 1.000. saioa burutu zuen. 1991n hasi zirenetik, hainbat emisio ordu bete dituzte Zarautz telebistako lagunok. Arrasate Telebistaren erreferentzia izanda, zaila egiten zaie bost lagun hauei maila profesionalera heltzea nahiz eta ekimena eta ilusioa

Nola hasi zineten Zarautz Telebista egiten?

Orain dela hiru urte hasi ginen. Bost lagun ginen—hiru kazetari eta bi teknikari—eta zerbait egiteko asmotan genbiltzan. Hasieran ez genuen izan laguntza handirik baina Cabledis enpresa eta Udalarekin zenbait bilerak egin eta gero, akordio batzuetara heldu ginen. 1991ko urrian hasi genituen le-

hendabiziko emisio pilotak, eta 1992ko urtarrilean ekin genien emisio errealei. **Nolakoa izan da orain arte izan duzuen bila-kaera?**

Lehenengo bi urtetan kable bidez emititzen genuen eta hau dela eta 400 eta 500 pertsonaren artean besterik ez zuten hartzen telebista etxean, bazkideztza bidez. Helburua zarautzar guztien


etxeetara heltzea zen eta horregatik uhinen bidez emititzen erer hasi ginen. Kable bidez etheen % 20ra heltzen ginen, egun % 60ra heltzen gara. Hala ere, gure helburu nagusia zarauztarrak telebistaren erabilpenaz eta gozatzeaz ohartaraztea da. Kontuan izan Zarautzen 19.000 pertsona baino ez direla bizi; aldiz, uda partean 50.000 biztanlera heltzen gara.

Zein da etorkizunari begira dauzkazuen helburuak?

Programazioari dagokionez, informatiboak finkatu nahi ditugu eta bestetik, herriko jendea eta kultur taldeak erakarri telebistara. Herri informazioak asko eman dezake eta horretan gabilta, herriko informazioa garatzen zarautzarren mesedetan.

Zaila da telebistarekin aurrera egitea?

Proiektua udal diru laguntza publikoei esker bizi da, finantzaketaren % 90 osatzen baitu honek. Hala ere, Arrasate Telebistaren mailara heltzeko asko falta zaigu, baina ez gara amateurrak ere. Nolanahi ere, badakigu herri informazioak asko erakartzen duela eta horretan gabilta.



Zarautz telebistako programazio arduraduna da Jesus.

NEREA ETXANIZ


TXORI BATEK

ESAN DIGU

ETBko zuzendari-tzak azken ukituak eman dizkio udako programazioari nahiz eta oraindik aurkezpen ofizilik ez egin. Hala ere, ARGIAk lortutako informazioaren arabera, udaldiak zenbait programa berri pantailaraziko ditu. «Beti alai», «Jo ta Ke» eta «Berriketa gutxi» dira saio berrien izenburuak nahiz eta oraindik ezin izan dugun baieztatu zein izango diren saio hauen mami eta aurkezleak.

Hala ere, jada ezagunak diren aurpegi eta saioak ikusgai izango ditugu ETB-lean. Pantaila txikira itzultzen diren artean Joseba Agirretxeak zuzendu eta aurkeztutako «Txuri Beltz» eztabaida saioa dugu. Izenburu ezaguna dugu ere «Kirolez blai», orain dela bi urte hasi bazen ere, etenaldi luzea bizi izan du udako kirolen inguruan murgiltzen den saio hau. Berreskuratzen diren dokumentalen artean futbol, pilota eta txirrindularitzaren historiak ditugu eta tele-sailei dagokionez «Penelope Enea», «Flamingo Berria» eta «Hau da hau» izango ditugu ikusgai.

Hala ere, kirola dugu errege uda parte honetan ETB-1eko programazioan. Futbol amerikarraren Amerikako Kopa edota Frantziako Tourrak arreta berezia jasoko dute.



■ **Firin Faran telebista saioan, astean zehar gertatutakoaren inguruko eztabaida**

Astelehenero gaueko 22:30tik aurrera, Estepan Aldamiz-Etxebarriak zuzendu eta gidatutako solasaldia izango dugu ikusgai. Kazarari, iritziegile eta adituek euren iritzia emango dute astean zehar gertatutakoaz. Esan bezala, astelehenero emititzen den saio honetan, informazioa, iritzia eta solasaldia ditugu protagonistak «Firin Faran» eztabaida

saioan.

■ **Piztiak eta naturaren edertasuna erakusten dituzten irudiak**

Dokumentalen artean, «Piztien Mundu Ikusgarria» dugu animalien mundua eta bizitza erakusten duen onenetako bat. Naturak harriruta utziko gaitu asteazkenero gaueko 23:05tik aurrera.


■ **«Urak dakarrena» saioak Santiago bidea izango du aztergai**

Bestetik, ETBk pantailarazten dituen beste dokumental batzuen artean, «Urak dakarrena» saioak Santiago bidea izango du aztergai. Ostiralean, arratsaldeko 17.00tik aurrera, Euskal Herrian zehar ibili diren erromesak eta Europako pertsonai- en istorio eta abenturak ezagutuko ditugu. Santiago bidea Europa penintsulagaz elkartu zuen lehen erlijio eta komertzio bide nagusia da.



■ **Euskaldunok txiste kontalari**

Osteguneko gaua barre algararako gaua dugu «Baietz barrez lehertu» lehiaketa saioaren bitartez. Jose Felipe Auzmendik eta Yolanda Alzolak aurkeztutako saioan, kamera ezkutua grabatutako irudi barregariak eta dibertigarriak ikusgai izango ditugu ostegunetan gaueko 22.00tik aurrera. Txiste kontalari harrigarriak ezagutuko ditugu. Hau gutxi balitz, «Baietz barrez lehertu»-ren ostean «Duplex» batean bizi eta lanean ari diren lau prostituta eta moja baten abenturak barrez lehertaraziko digute berriro.



■ **Futbolzaleen gaua, iganderako**

Futbol liga amaitzean da goela, Mikel Olazabalek eta Juan Antonio Larrañagak igandeetan gaueko 23.00tik aurrera aurkeztu duten «Futbol Eroa» saioak interes berezia irabazten du. Futboleko jardunaldia aztertzeaz gain, jokalaririk interesgarrienak, golik onenak eta irudi bitxiak erakutsiko dizkigute. Saio hau bukatu bezain laster, «Euskal Futbola» saioa hasiko da. Bertan euskal futbol taldeek jardunaldian izan dituzten emaitzen errebasoa ezagutuko dugu.

Z A P P I N G

Arrasate Telebista kalera aterako da San Juanak ospatzeko

Azken bost urteetan ohizkoa duen legez, aurten ere Arrasate Telebista Sebero Altube enparantzara abiatuko da ekainaren 23tik aurrera eta bertatik burutuko ditu zuzenean saio guztiak San Juan Festak direla eta. Jon Aldaondo, ATBko arduradunak adierazi dugunez, «*orain arte telebista atera izan dugu kalera telebista bat zer den jendeak jakin dezan. Aurten bestelako planteamendua egiteko asmoa dugu. Festa giroan eta beste ekitaldi bat izango bagina aterako gara kalera, berezitasun apartekorik gabe, jendearen partehartzea bultzatzera eta telebistaren partehartzea ere bultzatzera.*»

Platoa kalean antolatzeaz gain, ATBk Karaokea, Trikitixa eta Bertso lehiaketak pantailaratuko ditu egun seinaltu horietan Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen laguntzarekin. Beti ere Arrasateko jaiek jarraipen zuzena izango dute eta azken egunean, egun guztietako laburpen gisa, Arrasate Telebistakoek bideoa eskainiko dute.

■ **Imanol Murua eta Gervasio Juaristi mintzatuko dira ZTBn**

Zarautz Telebistak ohizkoa duenez, ekainaren 14an «Bazenekien» saioa eskainiko digu. Bertan, Jesus Atxutegi ezinduaren bizitza ezagutuko

dugu. Zarautzar hau istripu baten ondorioz ezindua gelditu zen. Lehendik bazeukan abilezia eta aisialdia betetzeko beharrak bultzatuta, era guztietako itsas untzien maketak egiten ikasten hasi zen. Antxon Etxebarriak erreportaia interesgarria eskainiko digu ohizko ordutegian, 19.15-20.15etan, informatiboa bukatu bezain laster.

Hurrengo egunean, ekainaren 15ean, PPko Gervasio Juaristi eta EAko Imanol Murua «Udal Herria» saioan mintzatuko dira Juan Mari Zubiaurre aurkezlearekin. Batzar Nagusietarako hautatuak izan diren bi politikariek kazetari honen galderak erantzuneko dituzte. Bestetik, saioa bukatzeko Susana Isasa zarautzarrera izango dugu moda disenuari buruz hitz egiten.

Irrati uhinak uda giroan

Euskadi Irratiak iragarri du uztailetik iraila bitarte burutuko duen udako programazioa. Julian Beloki, Euskadi Irratiko zuzendariak azaldu dizkigu irrati publikoaren edukiak uda parte honetan.

Euskadi Irratiak aurkeztu berri du uztailetik irailera bitarte, bere programazioak izango dituen aldaketa nagusiak. *«Jan taldeen aldaketak, opor-rak direla eta, eta udaldian ematen den irrati kontsumoaren jaitziera dira arrazoi nagusiak -azaldu digu Julian Beloki, Euskadi Irratiko zuzendariak-, baina baita ere, festa giroak dakarrena eta aisialdiak bere tarte berezia izan behar dute epealdi ho-*

netan». Hau dela eta, azpimarratzekoa dugu kirolek izango duten garrantzia. Frantziako Tourrarekin batera, Zubietako zaldi lasterketek, estropada denboraldiak, txirindularitza eta pilotak arreta berezia jasoko dute, informazio tarte eta zuzeneko emanaldietan Euskadi Irratiaren eskutik.

Hurrengo aldaketa aste barruan igortzen den «Goizean behin» irratsaioan antzemango dugu. Honen or-



Festa giroak eta aisialdiak tarte izango dute Euskadi Irratiko uhinen bidez (Arg.: A. Elosegi).

dez, uztailaren 3tik irailera bitarte «Goiz kronika» eta «Eguteran» saioak izango dira.

Bazkalostean, Esther Aizpuruaren eskutik, «Uda Giroan» izango dugu. Patxadarako tarte eskainiko digu.

Imanol abeslariak «Kantautore» izeneko irratsaioa aurkeztuko du asteburu gauetan. Europa eta Ameri-

kako hainbat herritako kantautoreak aurkeztuko ditu kantariak.

Informazioak eta kulturak ere tarte izango dute «Hamaika berri» saioan eta Pello Zabalak Donostiako Musika Hamabostaldiaz burutuko duen jarraipenean.

NEREA ETXANIZ

B A G A K

■ Durango Irratia Urkiolan

Datorren ekainaren 13an Durango Irratia Urkiolara abiatuko da San Antonio eguneko ospakizunetara. Goizetik arituko dira Durango Irratiko lagunk «San Antonio, San Antonio, txarra ala on, matrimonio» eskatuz eta bertara heltzen diren lagun eta giroaren berri emanez. Bestetik, datorren igandean egingo den Emakumeen Euskal Txirindulari Birari jarraipen zuzena egingo dio Durango Irratiak. Elkarrizketak, iritziak eta komentarioak entzun ahal izango ditugu Durango Irratiko uhinen bidez.

■ Egin Irratia Armentian

Egin Irratia Armentiaraino hurbilduko datorren igandean, bertan ospatuko den Araban Euskaraz ikastola eta euskararen aldeko ekitaldiaren berri emateko. Horretarako, konexio zuzenak egingo dituzte eta bertan bizi den giroa kontatuko digute. Pertsonaia eza-gunak mikrofonoetara hurbiltzen saiatzen diren bitartean, Armentia ikastola eta oro har Araban euskararen mesedetan egingo den ekitaldi honen inguruko datuak eta berriak eskainiko dizkigute Egin Irratiko ki-deek.

A U R P E G I A



**Garikoitz Udabe
(Euskadi Gaztea)**

20 urte baino ez ditu baina telebista, prentsa idatzian eta irrati-gintzan lanean aritua da Garikoitz Udabe. Berak «zorte handia izan» duela onartu arren, «Top Gaztea» ren

aurkezlea izateko zortea baino gehiago behar da. Usurbilgo irrati librea ezagutu zuen irrati-gintzaren magia 13 urte baino ez zituela, eta berak onartu digunez «ordutik nahiko argi izan dut beti irrati-gintza eta kazetaritza nituela gustoko».

Telebista hotzagoa dela eta prentsak beste enkantu batzuk dituela esan digu, eta nahiago duela irrati-gintza. «Etxeetan sartzeko modurik beroena eta zuzenena da». Orain azterketetan murgilduta dabil baina abuztura arte, astebururo bere ahots goxoa entzungo dugu.

EKAINAK **BERTSO AFARIA SANTUTXUN**

ostirala

Santuskaratxu 95 egitarauaren barne, Santutxuko Euskal Txokoak afaria antolatu du **Estitxu Arozena eta Bittor Elizagoien** bertsolariekin. Copenhage jatetxean izango da, 22.00etan.

IRUÑERRIKO EUSKALDUNEN FESTA

Euskalerria Irratiak antolatuta, **afari herrikoia** izango da Burlatako Hilarión Eslava 2ko polikiroldegian. Bertan, irratiak Fermin Irigarai nafar idazlearen omenez «**Larreko**» saria emango dio Iñaki Perurenari. 21.00etan izango da eta txartelak 2.000 pezeta (80 libera)ren truke honako lekuetan salgai: Iruñeko Xalbador eta Auzolan liburudendetan eta Txorimalo eta Toki Eder tabernetan.


EKAINAK **17 TUTERAN KONTZERTUA**

larunbata

Nafarroa Oinezek antolatuturiko ekitaldien barne, **Dut, Piperrak eta Negu Gorriak** taldeen kontzertua izango da 21.00etan Zezen Plazan. Aipatu beharra dago kontzertu honetan Dut eta Negu Gorriak taldeek disko berriak aurkeztuko dituztela. Sarrerak 1.200 pezeta (48 libera) balio du takilan erosiz gero eta 1.000 pezeta (40 libera) aldeztatik hartzen baduzu.

DONIBANE LOHIZUNEN ERE KONTZERTUA

King Mafrundi, Sustraiak eta Manu Dibangok kontzertua eskainiko dute gaur, ilunabarreko 21.00etan, Donibane Lohizuneko Dukontenia Izadi Antzokian. Sarrerak 80 libera balio du (2000pta).



Herri Urratsek, datorren urteko Iparraldeko ikastolen festari begira, kantu, logo eta lelo lehiaketa antolatu du. Logo eta lelo lehiaketari dagokionez, logoaren barnean leloa azaltzea hobetsiko da eta lanak aurkezteko epea ekainaren 16an bukatuko da. Kantu lehiaketan, berriz, **Herri Urratsen lema** azalduko da (ekainaren 26an ezagutaraziko da lema), eta ikastola eta Seaska kantuan aipatzea hobetsiko da. Kantuak aurkezteko epea urriaren 15a izango da. Lehiaketa irekia da eta edonork parte har dezake.

Mediaconchako erromatar bidarria


Besayako arroa (Cantabria), historikoki, Cantabriako kostaren eta Castellako mesetaren arteko komunikabide nagusia izan da. Besayako arroan bidarri honen zati lauzatu bikaina mantendu da, Pie de Concha eta Somaconcha artean kokatua. Mediaconcha bion artean dago.

Bidarri zatia bost kilometrokoa da, eta 400 metroko desnibela gainditzen du, eta 100 jaitsieran. Aldatsa % 10 ingurukoa da. Ibilbidea harriztatua dago, nahiz eta zati batzuk lurrezko pista batek lurperatu dituen.

Ibilaldiaren irteera puntua lehen aipaturiko Pie de Con-

cha herria izango dugu, Pujayako errepidea hartuta dagoen Barcenatik kilometro batera dagoen herria. Helmuga puntua, ostera, Pesquera herriska izango da. Trabesiak ez du zailtasun berezirik, eta bizpahiru ordutan egin daiteke.

Ibilbideari hasiera emateko, Pie de Conchan herriko azken etxeetara iritsi behar da, Pujayoko errepidea jarraiki. Bidarriaren hasieran, ezker aldera igotzen den bidea, bidarriari buruzko informazio zehatza eskaintzen duen kartela topatuko dugu. Bidea jarraituz gero, uneoro gora joz, laster izango dugu oinazpian harrizta-



tutako bideska. Gora segi eta lurrezko pista helduko gara, eta bertatik ezkerreko joko dugu, trenbide gaineko zubia pasatu eta berriro ere bidarria topatzeko. Handik gertura inor bizi ez den Mediaconcha herriskara iritsiko gara. Zaharkitutako elizaren ondotik berriro bidarria hartuko dugu, zeina baso ba-

tean barna igarotzen den. Hauze da, hain zuzen, ibilbideko zatirik ederrena.

Harriztatutako bidea amaitzean, Somaconchako herrira eramaten gaituen bidea hartuko dugu. Trabesia honen punturik garaienean dagoen lepoan dago. Bertotik, laster batean jaitsiko gara Pesquerara ■

LORE-JOKOEN OSPAKIZUNAK BERAN

Lore Jokoen 100. urteurrena ospatzeko ekitaldien barne, ekainaren **17an** Berako eskoletako haurrek prestatu duten liburu kankailua aurkeztuko dute 17.00etan, Kultur Etxean. Ekainaren **18an**, berriz, **Lamixine** Antzerki Taldeak Lore Jokoen antolatzaile nagusia zen Antoine D'Abbadie-ren etorrera antzetzuko du Berako kaleetan, trikitalari, dantzari, bertsolari, txistulari eta abarren laguntzaz. 17.00etan izango da. Ondoren, Kultur Etxean, Literatur Lehiaketako sariak banatuko dituzte.

IBILGAILU KLASIKOEN BILKURA TOLOSAN

Ibilgailu klasikoaren Nazioarteko I. Bilkura egingo da **ekainaren 17an eta 18an**. San Estebango Erakustazokan

250 ibilgailu inguru biltzen dituen erakusketa eta motorraren munduarekin zerikusia duten artikuluen azoka prestatu dituzte. Bi irteera ere antolatu dira, bata motorrentzat eta bestea autoentzat, kostaldean eta Goierriin barrena. Erakusketa goizeko 10.00etatik arratsaldeko 18.00etara ikusi ahal izango duzue, 200pta (8 libera) ordainduz gero.

EKAINAK **18** Ilgandea TRESNA ETA OHITURA ZAHARRAK IKUSGAI

LEITZAN

Kultur Elkartek eta Aurrera Kirol Elkartek Leitzako **tresna eta ohitura zaharren erakusketa** antolatu dute. Pilotalekuan izango da, goizeko 11.30etatik 13.30etara eta arratsaldeko 16.00etatik ilunabarreko 20.00etara. Uztailaren 9ra arte.



Euskadiko XIX. Dantza Txapelketa ospatuko da Seguran ekainaren 18an. Lehiaketan parte hartu ahal izateko gutxienez 15 urte izan behar dira. Dantzariak bi lan bete beharko dituzte: fandangoa txistuz dantzatu eta arin-arina trikitalari. Txapelketara 12 bikote baino gehiago aurkezen badira, kanporaketa saioa egingo da eguerdiko 12etan hasita. Finala, berriz, arratsaldeko 18.00etan izango da. Bikote irabazleak 75.000 pezeta (2.600 libera) jasoo ditu, bigarrenak 40.000 eta hirugarrenak 35.000 pezeta. Segurako Baratzte Frontoian egingo.

M O K O F I N A

Dudazko aurrerapenak

Etxean hozkailua jartzea mesederako izan da, du-darik ez, baina atzerapausurik ere ez ote zen eman-go galdetzen diot neure buruari. Janak iraunarazteko teknika zaharrak ez ote garen galtzen hasiko, alegia. Kontuan izan urdaiaz-

pikoa, menbriloak, gaztak, piper txorizeroak (eta hauek osatutako saltsak), marmeladak, izokin kezatua, ardoa bera, ahateki eta antzarkiak (*foie, pat, mousse, parfait, bloc-kak...*), turroiak, latak antxoa onak, melokotoia,

hestekiak, pastelak, pata-rak, makailu (eta bestelako arrain) gaziak, pudinak eta beste hamaika produktuk hortxe dutela jatorria: usteltze edo alferrik galtzeko arriskuan, hain zuzen.

EDORTA AGIRRE



Alferrik ez gastatzeko, hobereena zera litzateke, askorik ez erostea: ez ezazu 'bihotzarekin' erosi, zentzumenarekin baizik. Gaurrengun dendak izaten ditu jakiak bere horretan iraunarazteko sistema bikain eta ugariak eta hauei esker etxean baino hobeto egoten dira bertan jakiak. Beraz, badakizu, behar duzuna baino ez ezazu eraman etxera ■



KORPUS EGUNEKO PROZESIOA OÑATIN

Tradizioari jarraituz, goizeko 11etako meza nagusiaren ondoren irtengo da apostolu, San Miguel, dantzari, udal korporazio eta abarrez osatutako prozesioa. Arratsaldean, **Oinatz** dantza taldeak Korpuseko dantzak eskainiko ditu Foruen plazan, 18.00etan.

SAGARDOA, HERRI KIROLAK ETA BERTSOLARIAK ANOETAN

Anoetako Korpus jaien egitarauan, eguerdiko 12.30etan sagardo dastaketa izango da herriko plazan. Arratsaldean, 17.30etatik aurrera, herri kirolen ikuskizuna eta hau amaitu ondoren **Igor Elortza, Maddalen Lujanbio, Iñaki Murua eta Joxe Agirre**ekin bertso saioa. Iluntzean eta gauean, Trabuko taldearekin dantzaldia.

EKAINAK
19
Astelehena


SENDA BELARREN IKASTAROA BILLABONAN

Gure inguruko landare mota ezberdinak ezagutuz haien senda-aplikazioak, errezeta ohizkoenak eta ukendu, tintura, ardo eta xaboiaren elaborazioa ikastea da gaur hasi eta uztailearen 7ra arte luzatuko den ikastaroaren helburua. Astelehenetik ostiralera izango da, arratsaldez eta egunean 3 orduz. Izen-ematea Billabonako Kultur Etxean.

EKAINAK
21
Asteazkena

ARGAZKI ERAKUSKETA BILBON

Marie Ange Guillemint paristarraren eta Itziar Okariz donostiarraren argazkiak ikusteko azken eguna. Rekalde Are-



Lazkao Txiki IV. Bertsopaper lehiaketa martxan dago jadanik. Hiru mailatan banatua dago lehiaketa: gaztetxoena, 13 urte arte; gazteena, 14-18 urte artekoentzat eta helduena, 1976 edo aurretik jaiotakoentzat. Gaztetxoena mailan neurria eta doinua libreak dira eta gaia «Udalekuak». Gutxienez 6 eta gehienez 8 bertso. Gazteen eta helduen mailan gaia, neurria eta doinua libreak, eta gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso. Partehartzaile bakoitzak nahi adina bertso-paper bidal ditzake Ordiziako Argi-Berri Elkartera, uztailearen 1erako.

E T X E Z U L O A N

Arrosa distiratsuak

Arrosa da loreetan ederrena, edo horrela diote behintzat. Baina sortu, eta berehala zimeltzen dira. Ahalik eta denbora luzeenean distiratsu egon daitezen lorontzian ipintzeko unean bi gomen-dio hartu behar dira kontutan. Zurtoina zeharka moztu eta harritxo batekin igurtzi lehenik eta zurtoina uretan


sartu. Gero, mailu batez zurtoinaren azpikaldea zanpatu.

Lore zaintzaileek erabiltzen duten amarrua jarraitzeak ere ez luke kalterik sortuko, ez al da hala? Ba, gauero, aurrez urez bustitako egunkari paperez inguratu ezazu lorea. Modu honetan, arrosak guztik ixten dira, eta hurrengo goizean berriak bezain fresku irekitzen dira eguzki izpiekin batera.

Gaurtik aurrera, beraz, ez duzu aitzakiarik izango arrosa ederrak ez edukitzeko. Dena den, loreak usteltzen hasten direnean, ur ia izoztuan sartu zurtoina eta lorea, eta bizitza pixka bat luzatuko diozu arrosari ■



Zorriek oso gustuko izaten dituzte zakurrak. Zorrien bisita horiek ekiditeko, ohizko koilare horietatik at zakurraren burukoaren azpian edota bere etxolotxoan pinuaren orratz fresko batzuk jarri behar dira. Ezinbestekoa da erregulariki pinuaren orratz horiek aldatzea. Zakurra egoten den ohizko lekuetan garo freskoa jartzea ere gomendatzen da zorriak zakurrarengana hurbil ez daitezen ■



Uda partean batipat, eltxoak ugari izan ohi dira etxe orotan. Gainera, hauek uxatzea ez da lan erraza izaten. Uxatu ahal izateko badugu hemen amarru bitxia, eta gainera, itsusia ez dena: eltxoak konzentratzen diren lekuan iltze mordoaz zulaturiko larranja bat jartzea. Baina hori ere nahikoa ez bada, beste zertxobait ere egin genezake: eltxoek ezin dute geranioaren eta toronjilaren usaina jasan ■

toan, goizeko 11etatik 14.00etara eta 17.00etatik 21.00etara.

EKAINAK 22 HITZALDIA LEITZAN

Osteguna Fenomeno fisikoak eta horien inguruan sorturiko ohituren harian, solstizioei buruzko hitzaldia izango da Leitzako zinemaren, arratsaldeko 20.00etan.

LITOGRAFIA TAILERRA ARTELEKUN

Pintore, eskultore, grabatzaile eta abarrentzat antolatutako ikastaro honek litografia teknika ezberdinak ezagutzeko edozein obra grafiko editatzeko moduak ikastea du helburu. Ikastaroa uztailearen 1etik abuztuaren 31ra izango da eta ikasleen gehieneko kopurua 8 da. Izena emateko epea gaur amaitzen da. Matrikula: 26.000 pezeta (1.000 libera).

IPUINAK SANTUTXUN

Koldo Ameztoi ipuin kontalaria Karmelo elizako aretoan izango da, arratsaldeko 20.00etan.

ZIZUR NAGUSIAN KONTZERTUA

Kultur Zikloari hasiera emateko **Izugarria** taldeak **folk kontzertua** eskainiko du arratsaldeko 20.00etan igeritokien egoitzaren aurrean.

«IRUÑEKO ESKOLA»REN ERAKUSKETA

X. Morras, P. Osés, P. Salaberri, P. Azketa, M. Royo, L. Garrido eta J. Resano margolari nafarren lanak biltzen dituen erakusketa zabaldu dute Iruñeko Planetarioan. Uztailearen 2ra arte egongo da zabalik.



Getxoko Nazioarteko VII. Blues Jaialdia ospatuko da asteburu honetan.

Ostiralean, ekainak 16, Jimmy Johnson Band entzuteko aukera izango duzue. Ekainaren 17an, larunbata, Asunto Tornasol eta Sue Foley & The Austin Blues Band izango dira. Eta igandean, ekainak 18, Charlie Musselwhite Blues Banden kontzertua izango da. Kontzertu guztiak Erromoko Sta. Eugenia plazan egingo dira, gaueko 22.00etan. Sarrerak dohainik dira.

O S A S U N A

Haurrak autoan kontuz eraman

Renault etxeak ikerketa interesgarria egin du umeeke autoaren barruan duten segurtasuna aztertuz. Eta horretarako, istripuak simulatuz teknikariek aurreratuenak erabili dituzte, ondoren haur txikiak eserlekurik erosoena diseinatu eta, batez ere, istripuren bat gertatuz gero umeen segurtasuna garrantzatu ahal izateko.

Ikerketaren lehen ondorioa zera da, 4 urte bitarteko haurrentzat posturirik egokiena bizkarra aurrerantz dutela eramatea dela, hau da normalean pertsona helduok daramagunaren alderantzizko zentzuan. Frantzian ikeritutako istripuetan, % 40an umeeke ondorio grabeak eduki zituzten, eta kasurik

gehienetan eserlekuak ez ziren egokiak umearen adinarentzat, alegia bere pisu eta tamainarentzat, ez zeuden behar bezala finkatuak, edota umea ez zegoen bere eserlekuan ongi jarria. Europako 80.000 haur dira urtean trafikoko istripuren batean nahasiak gertatzen direnak, eta horietatik mila inguru hil egiten dira. Horietako askok beren bizia salbatuko zuketenen lotura-sistema egoki bat eduki izan balute.

Ume txiki batek beti ere atzeko partean joan behar du, bere eserleku berezian, edota bestela pertsona heldu baten besoetan, hobeto babestua joateko. Pentsa aurrez aurreko txoke batean, 50 km orduko abiadurak hogeita



bost kiloko ume bat tona bateko masa bihurtzen duela energia zinetikoaren ondorioz. Umeak behar bezala lotua joan behar du, segurtasuneko uhala izterren gaitetik pasatuz.


Ahal bada umearen eserlekua autoaren erdi-erdian kokatu behar da, atzeko par-

tean noski, eta bere atzetik, bandeja gainean inolako paketerik utzi gabe. Haurdun dauden emakumeek, bestalde, hiru puntuko gerrikoa erabili behar lukete, sabelaren azpian lotua, eta ez inolara ere abdomenaren gainean.

JABIER AGIRRE

Denborapasa

Gurutzegrama




EZKER ESKUIN: 1.- Euskaraz egiten dakiena. 2.- Bira emana. Zakur. 3.- Intsektu larba. Hodeietatik erortzen den ur izoztua. 4.- Eguzkia. Ezeztatu. 5.- Kontsonantea. Klariona. Kanpo, landa. 6.- Gipuzkoako herria. Maiz. 7.- Juntagailua. Hoditxo. 8.- Zerbaitetaz jabetu. Zinkaren sinbolo kimikoa. 9.- Bi. Ataurre. Bat. 10.- Toka, naiz. Arrain mota.

GOITIK BEHERA: 1.- Iparraldean, erota. Zango atal. 2.- Pluralean, oinarrizko edaria. Norgehiagoka. 3.- Sari bat ematen den lehiaketa. Uranioaren sinbolo kimikoa. 4.- Errepikatuz, txori mota. Barreak. 5.- Bihi. Bizkaieraz, omen. Kontsonante bustia. 6.- Menderatuak. 7.- Du. Bokala. Kontsonante bikoitza. 8.- Bokala. Jainko egiptiarra. Lagata. 9.- Sen. Boroaren sinbolo kimikoa. 10.- Araudi multzo baten pean jarria. Kasik.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



8 letra

Garabiak
Ikastola
Irarkola
Sarritan

7 letra

Ametitu
Bekatua
Olariak
Oskolak

4 letra

Ahia
Aker
Eban
Egin
Ezik
Gara
Idia
Iman
Izen
Kata
Kisu
Koru

Lera
Nano
Nian
Olak
Oloa
Otia
Sara
Sats
Soak
Taia
Zuka
Zura

2 letra

Al
An
Ar
Bo
Gu
Li
Ne
Ri

3 letra

Dik
Eta
Ihi
Ler

ERANTZUN


zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatun ageri den pertsonaiaren izena, eskuz banakako txapeldun berriaren izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11

	Setatia		Ale		Herri nafarra		Ezeztatu
	Lehian jarri		Hiru osagaiz osatua	6	Akatsa		
		4					
Irnstakor	Zelaira irten	Mingainak					
Kazetarientzen lanbide	Eztena	Errusiako ibaia					
				11			
Aurkitzen saiatu				Tente			
Garaztarra	3			Oxigenoa		2	
						Uranioa	
						Errep. fruitu trop.	
Hiru		Baoaren erdian		Kontso. bikoitza			
Txori mota		... eman, etsi	9	Denbora, beta		10	Gabarrak
		Trebea					
		Bokala					
	5		1				
Potasioa	Irudipena					50	
Portugaleko hira	Röntgen					Tantalia	
			7				
		Ald. euskal fonema			Her. hizk. eta		
		500			Kontsonantea		
Agiri mota	Pl. liseniketa organoa						8

Hieroglifikoa



Baxu hegaldatu arren ... aurkitu zuen.

Aurreko asteko soluzioak

JOSE MARI AMORRORTU									
●	E	●	D	●	E	●			
A	L	D	U	N	D	I			
●	Z	●	E	●	A	U	Z	I	●
H	A	U	T	E	S	K	U	N	D
●	I	●	L	●	U	●	E	D	●
O	N	E	T	S	I	A	●	O	●
●	D	A	●	K	K	●	M	A	●
J	A	●	L	A	O	S	●	K	●
●	R	A	U	L	●	O	T	I	●
M	I	R	I	K	U	A	●	O	●
●	A	●	I	●	S	●	I	●	●

Gurutzegrama

- EZKER ESKUIN: 1. Bahitzale. 2. Izukaitzak.
 3. Harana. Ag. 4. Alasa. Ekin. 5. Re. Iromena.
 6. Are. O. Arau. 7. Mahastia. K. 8. U. U. ID.
 Ba. 9. Naoa. Apez. 10. Aparrak. Zu.
 GOITIR BEHERA: 1. Biharamuna. 2. Azalera.
 AP. 3. Hura. Ehuna. 4. Ikasi. Alor. 5. Tanatos.
 Ar. 6. Zia. O. Ti. A. 7. At. Enmaidak. 8. Izakera.
 P. 9. Lagina. BEZ. 10. Ek. Naukazu.

Hieroglifikoa:

Jonen lekuan Xabi dago

Kate hitzak

E	Z	T	I	A	Z	A	O
E	R	I	A	T	O	R	T
M	A	L	U	T	A	K	R
E	K	P	I	L	O	T	A
A	B	A	K	O	A	S	K
A	R	D	I	I	N	K	A
A	A	A	U	Z	T	A	B
L	A	N	K	I	D	E	A
D	I	K	G	A	N	I	B
I	Z	A	R	K	A	I	T
U	K	A	N	E	K	A	I

Bosteko ttipiak

- A 1. Anboto. 2. Bizar. 3. Mozolo.
 4. Taloa. 5. Sorroak.
 B 1. Baiona. 2. Irter. 3. Sotero.
 4. Nerea. 5. Garroak.

Bosteko ttipiak

- Nafarroako herria
- Txanponak
- Oihandar
- Burdinazko lokarria
- Elikagaiak

	1		3		5
1		2		4	
	2				
	3				
	4				
5					

- Animalia adarduna
- Gipuzkoako hiria
- Zuberoako herriska
- Higuina
- Lasaiak

Zenbaki bakoitzeko hitz bat eta bera


	1		3		5
1		2		4	
	2				
	3				
	4				
5					

Udalak, legealdi berri baten atarian

ESAERA batean laburbilduko dut udalaren izaera politikoa; demokrazia zuzena da, zenbait zioengatik demokrazia ordezkaturik bilakatuko dena. Demokrazia ez da era modernoaren ikuspegitik ulertu behar, baizik eta giza egoeraren homogeneitatean sorturiko diferentziarik gabeko errealitateak. Horrela, giza indarren mugimendu askak eraginiko maila desberdinak onartu egiten ditu demokrazia horrek eta hori, geure kasuari dagokionez, argi eta garbi ikus daiteke Bizkaia eta Gipuzkoan, batipat, Araba eta Nafarroan pixka bat diferente bada ere. Hitz horiek ez dira gaur goizekoak, Arturo Campion nafarrak 1919an Euskal Udala Administrazioaren Biltzarrean esan baitzituen, Eusko Ikaskuntzaren deira ehundaka lagun bildu zirenean, gure udalen arazoak aztertzeko.

MAIATZAREN 28ko hauteskundeetan osten mapa politiko berriaren diseinuari ekin diote alderdi politiko guztiek, gozo opilaren zatiketa nola egingo den antzeman nahian eta, jakina, apurrik txikiena ere alperrik ez galtzeko asmo osasuntsuarekin. Legealdiko lau urteek jokorako aukera eskaintzen dute eta zirrikitu guztiei ipini behar zaie arreta, haize freskoren batek gozozaleak gaixoraz ez ditzan. Lerro hauek irakurri orduko, udal eta biltzar nagusietako osaketa erabakita egongo da, seguru aski. Baina gaurko nire hausnarketa xume honi berdin dio horrela bada ere, ziur bainago idaztera mugiarazi nauen gaiak talde berrien konposaketan ez duela oihartzunik izan.

1919ko egoera politikoa hartan, garaiko diputazioen izkutuko interesekin eta egitura autonomikorik ezean, ezina gertatu zitzaizen euskaldunei udal egitura egoki eta gatazkarik gabeta sorraztea, aztergaien planteamenduan bete betean asmatu bazuten ere. Baina udal-ohitura zabalekoa bide den Euskal Herriak ezin izan zuen martxan ipini



J.M. VELEZ DE MENDIZABAL

Idazlea

udalen erregimena arautuko zukeen lege-markoa. 1995ean, berriz, euskaldunok zaituagoak gaude, administrazio zein ikuspuntu politikotik. Nafarroan, adibidez, 1990ean onartu zen Tokiko Administrazioaren Foru Legea eta, adituek diotenez, lege-adiministrazioiko kulturaren parametroen arabera, ongi burututa dago.

EUSKAL Komunitate Autonomoaren kasuan, eta Josu Erkoreka Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren hitzak erabiliz, azken hamar urteotan garaturiko erakunde-ereduak betetzeko duen husune nagusia udalak bere beharreko lekua zehaztea da, bai aginte publikoen lanak banatzeko orduan eta baita ekintza-publikorako diru-iturriei dagokienean ere. Noski, hori guztia egitura politiko nahasiago eta konplikatuago batean, lehengo diputazioen betekizunari orain Eusko Jaurlaritzarena ere gehitu behar zaiolako.

Osatzear dauden udaletatik euren ahalmena arautuko lukeen legea bultzatu beharko litzateke, berandu baino lehen. Gaurreguneko premien arabe-

rako arautegi zabala gorpuztu beharko lukete, administrazio publiko guztien eta tokiko erakundeen eskubide eta baliabideak kontuan izanik. Zerga sistema errebisatu beharko litzateke, lurralde historikoei kontzertu ekonomikoak eskaintzen dizkien posibilitateen arabera eta tokiko erakundeetako personalaren egokitzapena zaindu beharko litzateke, Euskal Herriaren erakunde azpiegituraren barruan, hizkuntz-normalizatorako urratsak behar den bezala eraginez.

EUSKAL erakundeen muina gure udalen elkarte eskean datza... Eta ondoko hau gerta daiteke: Euskal Herria bere indar eta zintzotasun osoz bere eskubideen aldeko lanean jartzen da, eta orduan udalak euren ogasunaren jabeak izango dira, edo espainiar administrazio zentralistaren ereduari atxikiko zaizkio, esperantzarik gabe. Goian aipaturiko 1919ko biltzarrean esan zituen hitz horiek Francisco Gascue Gipuzkoako foru diputatu ohiak. Hirurogeitamasei urte beranduago, euskal udalak tokiko autonomiaren errekonozimendua aldarrikatzen ari dira eta euren dagokien egiazko gobernuarekiko begirunea eskatzen diete baltzuingo erakundeek.

A! Eta gaurreguneko euskal mapa 1919koa baino askosaz korapilotsuago agertzen dela idatzi dut, Hego Euskal Herriko bi komunitate autonomoen aipamena egin aurretik. Ez dut ahaztu Ipar Euskal Herria, baina orrialde honen mugetatik kanpo litzateke konparaketan bitartez harenganako hurbilketaz teorizatzea. Dena den, eta aholkua guztientzat baliagarria izanik, euskal udal guztiek gero eta arreta handiagoz begiratu beharko diote europar erakunde errealitateari, hortik etor baitaiteke etorkizun hurbileko partaidetza.



Ltxura baino gehiago...

FOTOKONPOSAKETA
INPRIMATEGIA

ANTZA

Maisuen Eskutik

Industrialdea 1-2 20160 LASARTE-ORIA
Tel: (943) 37 07 38 - 37 15 45 Fax: (943) 36 54 93 - 36 10 48

TXORIA, INOIZ BAINO GORAGO

